



SUSTAINABLE URBAN MOBILITY CONGRESS SUM BILBAO 19

2019KO OTSAILAREN 20TIK — 21 ERA

Euskalduna Jauregia, Bilbao

Biltzarreko Memoriak



ANTOLATZAILEAK



BABESLEAK



GOLD



SILVER



BRONZE

LAGUNTZAILEAK



MEDIA PARTNER





MEMORIAK

SUM Bilbao 19

Edukia

1.

SUM-REN AURKEZPENA

2.

BILBAO HIRI-MUGIKORTASUNERAKO NAZIOARTEKO
ERREFERENTE GISA

3.

ANTOLATZAILEAK

3.1. Bilboko Udala

3.2. Petronor

4.

BILTZARRA

4.1. Key Figures

4.2. Ardatzen deskribapena

4.3. Saioen aurkezpena

4.4. Bilboko Adierazpena

4.5. Networking Zone

4.6. Side Events

5.

BABESLEAK

6.

LAGUNTZAILEAK

1.
SUM-REN
AURKEZPENA

SUM

BIO
'19

20-21 FEBRUARIK
SUSTAINABLE
URBAN MOBILITY
"XXI. Mendeko hiriak mugitzen"
"Moviendo las ciudades del siglo XXI"
"Moving the cities of the XXI century"



SUM Bilbao 2019 “XXI. Mendeko hiriak mugitzen”

Nazio Batuen zifren arabera, XXI. mendeko hirietan munduko biztanleriaren % 55etik gora bizi da eta bertan metatzen dira jardura ekonomiko gehienak. Ondorioz, ezin da ukatu hauek erre-kurtsoen eta energiaren sortzaile eta kontsumitzaile gisa duten eginkizuna, bai eta erronka globalen aurreko aukera eta irtenbideak sortzeko duten ahalmena ere. Pertsona eta salgaien mugikortasun jasangarria da erronka horietako bat. Testuinguru honetan, **Bilboko Udalak** –Bilbao munduan erreferente delako hiri-eraldaketako prozesuetan eta garraio publikoan– eta **Petronor**-ek –Euskadiko garapen ekonomiko eta sozialaz arduratzen den enpresa energetikoa– **Sustainable Urban Mobility Congress SUM Bilbao 19 “XXI. mendeko hiriak mugitzen”**

biltzarra antolatu zuten. SUM Bilbao 19 nazioarteko ekitaldi baten lehenengo edizioa da: ekitaldi hori, hain zuzen ere, mugikortasunaren etorkizunari eta horrek XXI. mendeko hirietan Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko duen eraginarri buruzko mundu-mailako gogoetaren buru izateko sortu da. 2019ko otsailaren 20 eta 21a bitartean ospatu zen Bilboko hiriko Euskalduna Jauregian, eta **1400 profesional** inguru bertaratu ziren, eremu hauetatik zetozen 550 erakunde baino gehiago ordezkatzeko zituztenak: hiri eta administrazio publikoak, enpresak eta startup-ak, zentro teknologikoak eta unibertsitateak. Biltzarraren programak, guztira, **15 osoko saio eta saio tematiko** izan zituen, hiru **ardatz tematikoen** inguruan antolatuta:

1.

Mugikortasun iraunkorraren aldeko
estrategia eta politika publikoak

2.

Teknologia eta berrikuntza
mugikortasun iraunkorrerako
konponbideen sortzaile

3.

Garapen sozioekonomikorako
aukerak

Saio horietan 77 **nazioarteko adituk** hartu zuten parte, zeinen artean hauek egon ziren: Lehendakaria, Iñigo Urkullu; Bilboko alkatea, Juan Mari Aburto; Petronorreko presidente exekutiboa, Emiliano López Atxurra; Munduko Bankuko “SuM4All” ekimenaren sortzailea eta arduraduna, Nancy Vandycke; Espainiako Gobernuko ingurumeneko estatu-idazkaria, Hugo Morán; Europako Batzordeko Mugikortasun eta Garraioaren (DG MOVE) zuzendariorde nagusia, Matthew Baldwin; Garraio eta Garapen Politiken Institutuko (ITDP) programaren koordinatzailea Hego Asian, Shreya Gadepalli; Repsoleko presidentea, Antonio Brufau; genero eta hiri-garraioan aditua den aholkulari independentea, Heather Allen, eta NBEko idazkariorde nagusia eta NBE Habitat-en zuzendari exekutiboa (2010 - 2017), Joan Clos, besteak beste. Guzti horiek hiri-mugikortasun jasangarriko sistemak eraiki eta finkatzearen alde estrategikoei buruz jardun zuten, latitude ezberdineko hirien mugikortasunaren, energiaren eta digitalizazioaren inguruko esperientziak aditzera emanez.



SUM Bilbao 19-k hauen **laguntza eta lankidetz**a izan zuen: Hiri eta Tokiko Gobernuen Sare Mundiala (CGLU), Espainiako Probintzien eta Udalerrien Federazioa (FEMP), Euskadiko Udalen Elkarte (EUDEL), AMETIC, Energiaren Euskal Erakundea (EEE), Ihobe eta Union Internationale des Transports Publics (UITP).

Entitate babesleen artean, Repsol eta BBKren laguntza nabarmendu zen bereziki. Bi eragileek lidergo ukaezina dute presente dauden lurraldeetan eta paper estrategikoa jokatzeko dituen erronka eta aukeren konpromisoa finkatzeko. IBIL, Irizar e-mobility, Kapsch TrafficCom, FCC Medio Ambiente, ALSA, Sacyr, Beaz eta Espainiako Sare Elektrikoak (REE) bete zuten gainerako babesleen zerrenda.

SUM Bilbao 19 biltzarraren beste helburuetako bat hiri-mugikortasun ereduak jasangarriagoak bihurtzeko eragin- eta eraldaketa-ahalmena duten zenbait eragileren arteko topaketa sustatzea izan zen. Horretarako, **Networking Zone**-a prestatu zen, Euskalduna Jauregiko atondo nagusian kokatutako 2000 m²-ko gunea. Gune horrek bertaratu zirenei mintzatzeko, kafe bat hartzeko, iritziak partekatzeko eta harremanen sareak handitzeko aukera eman zien. Gainera, Networking Zone-an **babesle eta enpresa** parte-hartzaileen **stand** ezberdinak kokatu ziren, bai eta **Speakers' Corner**-a, non mugikortasunaren etorkizunari buruzko ideia eta proiektu interesgarriak partekatu ziren, eta **Information Screen**-a ere, biltzarraren insight nagusiak etengabe proiektatu zituen formatu handiko pantaila.


Halaber, SUM Bilbao 19 biltzarra Euskalduna Jauregiko guneeetan **Side Event** ezberdinak ospatzeko esparru bezala ere erabili zen, eta hiri-mugikortasun jasangarriaren eztabaida Bizkaiko herritarrengana hurbiltzeko eta hura sustatzeko ere, hiriaren hainbat tokitan **eMugikortasun**-ekitaldiak prestatuz.



Laburbilduz, SUM Bilbao 19 biltzarrak Bilbao hiri-mugikortasun jasangarriaren munduko hiriburu bihurtu zuen bi egunetan zehar. Esperientzia- eta ezagutza-truke aberasgarria ez ezik, nazioarteko topaketa honek Bilbao Mugikortasuneko Champions-en Komunitatera atxikitzea eta Bilboko Adierazpenaren sinadura ere ahalbidetu zuen. Azken hau, Garapen Jasangarri-rako Helburuekin eta Agenda 2030ekin bat egiten duten eredu-erantz bideratuz, gaur egungo mugikortasunaren gaineko politiken eta jardunbideen artean zubiak eraikitze sinatzen dutenen konpromisoa islatzen duen dokumentu pragmatikoa da.

2. BILBAO HIRI- MUGIKORTASUNERA NAZIOARTEKO ERREFERENTE GISA





Gaur egun, Bilboko hiriak nazioarteko onespén handia du haren eraldatze-prozesuagatik. Baina ez da beti horrela izan. 1990eko hamarkadaren aurretik, Bilbao guztiz kutsatuta zegoen hiri industrial zen. Egun, euskal hiri honen gainean jasangarritasunaren bandera mugitzen da eta mundu mailako erreferentziako hiri-mugikortasun jasangarriko ereduak izaiteaz harrotzen da.

Jasangarritasunerako trantsizioa

Historikoki, Bilbao etengabeko garapen sozial, ekonomiko eta hiri-garapena izan duen hiri izan da, haren portuaren dinamismoari esker itsas-merkataritzan gune estrategiko gisa. Zentzu honetan, XIX. mendearen bigarren erdialdean, Bilboko hiriak bultzada handi bat izan zuen haren garapen-prozesuan. Epealdi horretan trenbidea heldu zen, merkataritza- eta portu-jarduera areagotu zen eta industria siderurgikoa eta ontzigintza ezarri ziren, meategien ustiapenarekin

batera. **Jarduera ekonomiko berri hauek inpatu handi izan zuten hirian**, hiri-paisaia paisaia industrialean eraldatuz, non kutsadura eta gune berdeen gabezia nagusitzen zen.

XX. mendearen amaieran, motore industrial hori, Bilboko hiriaren garapenaren iturri izan zena ontzigintza eta meatzaritzan oinarritua, hain zuzen, krisi sakon batean sartu zen eta hiriak haren ekonomia-eredua berriz pentsatzera behartu zuen. Momentu horretan, Bilboko hiriak norabidea aldatu zuen eta haren ekonomia zerbitzu eta berrikuntzaren eremuko beste sektore batzuetara bideratu zuen. Prozesu honekin batera, **hiri-eraldaketa politika** bat etorri zen, **gaur egun hirien aldaketa-paradigma bezala aztertzen dena**. Garai haren gertaera sinbolikoa Bilboko historian Euskalduna ontziolak itxi izana izan zen, geroago Euskalduna Jauregia bihurtu zena, SUM Bilbao 19-ren egoitza.

Azken 25 urteotan, Bizkaiko hiriburuak dirutza inbertitu du proiektu nabarmenetan, esaterako, Itsasadarra garbitzeko, Zazpi Kaleak beren onera ekartzeko, azpiegitura berriak eraikitzeko eta Guggenheim Bilbao Museoa, egungo hiriaren ikurra, eraikitzeko. Industria-birmoldaketa eta hiri- eta ingurumen-berroneratze horren ondorioz, gaur egun Bilbao harro dago teknologia berri eta jasangarritasunaren aldeko apustua egiten duen hiri modernoa izateagatik jaso dituen sarietaz eta nazioartean aintzat hartua izateaz. Hiriaren sari-zerrendaren artean hauek nabarmentzen dira: **“First Lee KuanYewWorld City Prize 2010”**, hirien Nobela bezala ezagutzen dena, eta **“Europako 2018ko hiririk onena”**, The Academy of Urbanism-ek ematen duena.

Bilboko mugikortasun-ereduaren euskarri nagusiak

Bilboko mugikortasun-ereduaren arrakasta hiriak bertan gauzatzen diren lekualdatzeak ingurumenarekin begirunetsuak izatea, gizarteratzearen alde lan egitea eta lurraldearen garapen ekonomikorako aukera sortzea sustatzen duten esfortzuetan datza. Gainera, esfortzu hauek hiri-eragile ezberdinen artean lankidetzan gauzatzen dira. Hauek dira Bilboko mugikortasun jasangarriko ereduen euskarriak:



Ingurumenarenganako begirunea

Bilbao trantsizio energetikoan aurrean doa, erregai fosilen dependentziarik ez duten mugikortasun-ereduak bilatuz, modu horretan CO2 emisioak murrizteko. Jarduketa hauek nabarmentzen dira:

- Zerga-hobarien bitartez eta karga-puntuak instalatzen ibilgailu elektrikoek erosteko sustatzea.
- Diru-laguntzen bitartez **ibilgailu elektriko** edo hibridoek **eskurapena** erraztea, bereziki taxiak bezalako kolektibo profesionalentzat.
- Hiri-autobusen flota berriztatzea, bioerregaia erabiltzen duten autobusengatik edo autobus elektrikoengatik aldatuz.
- **Mugikortasun-eredu alternatiboak** sustatzea, bizikleten mailegu zerbitzua eskainiz, BilbonBizi, edo mugikortasun partekatua.

Mugikortasun inklusibo, seguru eta osasungarria

- Garraio publiko intermodaleko sistemak hiri inklusiboagoa izatea errazten du, hiri- eta metropoli-konexioa sustatzen duelako, aniztasun funtzionalera moldatzen delako, ekonomikoki eskuragarria delako eta ordu-estaldura egokia bermatzen duelako.
- Tokiko biztanleen eta bisitarien jardura fisikoa hiriko eta haren gunek berdeetako ibilbide-programen bidez sustatzen da.
- **Hirigune barruan ibiltzeko gehieneko abiadura murriztu egin zen (30 km/orduko), bide-segurtasuna hobetzeko eta istripurik gerta ez dadin.**
- **Genero-ikuspegi batetik egindako** mugikortasun ekintza-planaren diseinuan lan egiten ari da, non, besteak beste, Bilbobus-en gaueko ibilbideetan erdiko geldialdien zerbitzua aurreikusten den.

Garapen ekonomikoa

- **Garraio publikoko zerbitzuak handituz joan dira** eta azken urteetan azpiegitura hauetan inbertitu da: metroa, tranbia, funikularra, abiadura handiko trenak eta autobus-sareak (Bilbobus eta Bizkaibus).
- Bilboko garraioaren gakoetako bat intermodalitatea da, lurreko, itsasadarreko, itsasoko eta aireko mugikortasun-modu ezberdinen konbinazioa errazten duena, hauek barne hartuz: autobideak, trenbidea, portua, itsasadarreko garrariorako txalupak eta nazioarteko aireportua.
- **Automobilgintza faktore estrategikoa da euskal ekonomian:** ekoizpen-kopuru handia du, baita I+G+b oinarri duen modernizazio-maila handia ere. Euskadiko automobilgintzako klusterra, 300 enpresak osatzen dutena, haren negozioen garapena hiri-mugikortasun jasangarrira zuzentzeko bidean dago.

Gobernantza

- Bilbok **Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Plana (HMJP)** du 2015-2030 epealdirako. Horren bidez, Bilbao hiri osasungarri, eraginkor eta jasangarria izatea bilatzen da. HMJP plana modu parte-hartzailean garatu da, tokiko herritarren interesak eta ikuspegiak kontuan hartuz.
- Udaletxeko udal-talde guztiek sinatu dute **Mugikortasunaren aldeko Ituna**, HMJP planaren konplimenduaz arduratzeko. Ildo horretan, Mugikortasunaren Foroa sortu da, urtean bi aldiz HMJP planaren ezartze-prozesua ebaluatuko duen organoa dena.
- Sektore pribatua ere arduratzen da hiri-mugikortasun jasangarriaz. Horren adibide da SUM Bilbao 19 Biltzarra, Bilboko Udalak, Petronorrekin batera lankidetzan antolatutako ekitaldia, eta 550 enpresa baino gehiagoren partaidetza izan zuena.

3. ANTOLATZAILEAK



BILBAO, ERREFERENTZIAZKO HIRIA JASANGARRITASUNAREN ARLOAN

Bilbao hiri-eredua da XX. mendearen amaieran bizi izan zuen hiri-berroneratzea dela eta. Hiria birsortu egin zen haren izaera industrialagortzear zegoenean eta bere zeru gris eta beltzak bultzada ekonomiko berriak lortzeko aukera urruntzen zuenean.

Eraldaketa hori errealitate bat da gaur egun, baita gure inguruneko gainerako hirietan ere, pixkanaka haien hiri-iraultzak eraikitzen joan direnak. Aldaketa horiek, zoritxarrez, gutxitan bakarrik hartu dituzte kontuan han bizi diren pertsonak. Etorkizuneko hiriak jasangarriak izan behar dira baina, batez ere, osasungarriak, horrek bakarrik egingo dituelako erakargarri eta, hortaz, lehiakor.


Eta, Bilbon, behar bezala ulertu dugu arrakastaren edo porrotaren zati handia martxan jartzen dugun mugikortasun-politikaren arabera izango dela.

Eta, hausnarketan honen erdian, gure hirian SUM Bio19 bezalako nazioarteko kongresua

hartzeko aukerarekin egiten dugu topo. Bilbao etorkizuneko mugikortasunari, haren erronka eta aukerei buruzko nazioarteko hausnarketa-zentro bezala kokatzeko abagunea.

Hiri jasangarriagoen eraikuntzak planteatzen dituen erronkak analizatzeko eta eztabaidatzeko foroa, non hiri mugikortasun, energien erabilera eta digitalizazioaren berrikuntzarako laborategi bat bihurtu ahal den. Mugikortasun-eredu jasangarri eta adimentsua eraikitzen duten eragile guztien arteko interakzio- eta elkarrikeraketa-gune bat sortzea, mundu osoko hirien esperientziak eta etorkizunerako ikuspegiak partekatzeak.

Publikoa eta pribatua dena elkartzen diren toki bat eskaintzea, pertsonen osasuna eta ongizatea hobetzeko pentsatutako mugikortasun-eredu baten erakuntzan lan egiteko, eta zuzenean gizartearen eragiten dituen ezberdintasunak ezabatzean eragina duena, hala nola genero-ezberdintasunean.





PETRONOR ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIA

Petronor izan zen 1986an berunik gabeko gasolina eskaini zuen Estatuko lehen findegia eta erregai gero eta garbiago eta eraginkorragoak produzitzen joan da. Repsol Taldearen parte bezala, mugikortasunean aurrera egitea laguntzen duten energien alde egiten ari da apustu, energia-eraginkortasuna eta energiaren kalitatea bilatuz. Mugikortasun elektrikorako beste gako bat baterien garapena da: txikiagoak izatea, autonomia gehiago izatea, merkeagoak izatea, modu eraginkorragoan fabrikatu eta haien bizitza erabilgarriaren amaieran birziklatu ahal izatea eta kargatze sistema ultra-arinak izatea. Mix energetikoa ere aldatu behar da, energia berri-eragileen partaidetza handiagoarekin.

Petronorren jarduketa nagusiak ibilgailu elektrikoaren kargatzeari daude lotuta, IBILen bitartez, eta kargatze arinarekin eta kargatzeko zerbitzu berrien garapenarekin daude erlazionatuta. Gainera,

mugikortasunari lotutako zerbitzu energetikoak kudeatzeko plataforma batean lan egiten ari da.


Tecnalia (Espainiako zentro teknologiko handiena eta zeinarekin Petronorrek epe luzerako lankidetzarako akordio estrategiko bat duen) erreferentziako kideetako bat da, Cidetec (energia-biltegiratze eta baterien irtenbideen garapenean) eta Vicomtech-ekin batera (irudi eta data analytics-en irtenbide eta analisi adimentsuetan).

Petronorrek urtean 12 milioi tona petrolio gordin ekoizteko ahalmena du, 940 langile ditu eta 6200 pertsonen lan induzitua. Azken bost urteotan, 1.200 milioi euroko guztizko inbertsioak izan ditu. Bilboko Portuko mugimenduaren % 40 baino gehiago sortzen du eta bere ekoizpenaren heren bat baino gehiago esportatzen du, hots, Bizkaiko esportazioen % 18,21 eta euskal ekoizpenaren % 9,7.



4. BILTZARRA





+40

Argitalpenak
35 euskarrietan

68 mila bisita 🌐

Sumbilbao19.com

38.237

Otsaileko bisitak

12 mil

"Programa" + bista 3 hizkuntzetan

6.772

Otsaileko erabiltzaileak

10.500 hitz baino gehiago "SUM Insights" Blog-ean

+99 mila inpresio 🐦

@SUMBilbao

300

Jarraitzaileak

303

Tuit-ak

206

Likes

+2.600 inpresio 📷

@sumbilbao19

151

Jarraitzaileak

526

Interakzioak

85

Post-ak

+5 mila inpresio in

127

Jarraitzaileak

40

Argitalpenak

@sumbilbao19

+2 mila inpresio f

73

Jarraitzaileak

75

Argitalpenak

@sumbilbao19

Sare sozialetan % 100 modu organikoan sortutako inpresioak

**Biltzarreko
1,5 egun**



Biltzarra 2019ko otsailaren 20a eta 21a artean ospatu zen.

**77
Parte-hartzaile**



Biltzarra 3 ardatz tematikoetan egituratu zen eta 15 saio izan zituen. Guztira 56 hizlari, 14 moderatzaile, hasierako saioan 6 autoritate, eta aurkezle bat parte hartu zuten.

**550
enpresa**





Biltzarreko entzuleen artean izaera publiko zein pribatuko 550 enpresa zeuden ordezkatuta.

**1400
lagun**




Hurbildu zirenen gehiengoa sektore pribatuan lan egiten dute (% 53), eta horien arteko zati nabarmena sektore publikoan (% 29). Prestakuntza- eta ikerketa-zentroetako ordezakariak (% 10) ere bertaratu ziren, bai eta elkarte eta klusterren ordezakariak (% 7) ere.



4.2

ARDATZEN DESKRIBAPENA



Mugikortasun iraunkorraren aldeko estrategia eta politika publikoak

Pertsonen nahiz salgaien mugikortasunaren ingurumen-eraginak eta gizarte-, politika- eta ekonomia-eraginak onartu izanak, energia berrien erabileran oinarritutako eredu efiziente eta iraunkorrera igarotzera bultzatzen ditu hiriak eta lurraldeak.

Mugikortasun-eredu berriak abiarazi eta finkatzeko, politika publikoak edo “joko-arauak” taxutu behar dira, egile guztiak horren alde jar daitezten. Politika horiek hainbat eremu barne har dezakete, hala nola, gizarte-garapen barne-hartzailea, hiri-plangintza, osasuna, segurtasuna, ingurumena, teknologia eta berrikuntza. Eta

politika horiek herritarrek (bottom-up), agintari eskudunek (top-down) edo politika publikoen sareen arteko nahasteak (policy networks) adieraz ditzakete.

Funtsezkoa da, beraz, gaur egun administrazio publikoak toki-testuinguruan hiri-mugikortasun iraunkorreko eredu berriak taxutzea sustatzeko gauzatzen ari diren planak, programak eta proiektuak berraztertzea, baita norabide horretan aurrera egiteko hirien artean konpromisoa gidatu eta sortuko dituzten mundu-mailako arautze-esparruak eraikitzeke egokitasunari buruz eztabaidatzea ere.



Teknologia eta berrikuntza mugikortasun iraunkorrerako konponbideen sortzaile

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKTak) dira mugikortasun iraunkorreko sistemak zentzuz garatzeko muina.

IKTen eragina nabaria da mugikortasunaren balio-katean zehar, hauek ahalbidetzen baititu: ordezkio erregaiak eta energia berriztagarriak erabiltzea, zeinek mugikortasunerako energien horniduraren ekosisteman eragina duten; negozio-eredu berriak sortzea, hala nola, elkarlaneko ekonomia eta beribil partekatua; softwareren bilakaera, zeinari esker aplikazio eta funtzionalitate berriez horni daitekeen; monitorizazioa, datu-kopuru izugarriak kudeatu

eta kontrolatu, gorde eta ustiatzea eta horiek adimen artifizialean oinarritutako sistemak garatzen aplikatzea errazten duten sentsoeren birtutez; eta, oro har, transformazio-teknologiaren (IoTSP, errealitate birtuala eta areagotua, blockchain eta fabrikazio gehigarria, besteak beste) ekosistema garatzea.

Horiek horrela, funtzionamendua eta kudeaketaren efizientzia areagotzeko eta mugikortasun-sistemak hirietan eragiten dituzten ondorio kaltegarriak murrizteko aliatu estrategikoak dira erakutsi dute IKTek.



Garapen sozioekonomikorako aukerak

Mugikortasun iraunkorra funtsezko faktorea da hiri-inguruetan garapen sozioekonomikorako aukera berriak ager daitezen, hiri barneratzaileak, seguruak, erresilienteak eta iraunkorrak eraikitzeari egiten dion ekarpen ukaezinagatik ez ezik, ondasun eta zerbitzu berrien eskariaren bitartez (horiek ekoiztu eta ezartzeak ondorio biderkatzailea sortzen du garapenean) hainbat sektore ekonomiko bizkortzeko duen gaitasunagatik ere.

Testuinguru horretan, mugikortasun iraunkorreko sistemak eraiki eta finkatu izanak, garraiobide efizienteak, fidagarriak eta seguruak (produktibitate-mailetan eta herritarren bizi-ka-

litatean eragin onuragarria dutenak eta airearen kutsadura-mailak murriztuko dituztenak) esku-ratzeko arrailak txikiagotuko ditu eta, ondorioz, ingurumenari eta osasun publikoari onurak ekarriko dizkio eta balio-kate osoan zehar, berrikuntzarekin eta teknologiarekin loturiko enplegu eta negozio berriak sorraraziko ditu.

Inolako zalantzarik gabe, agertoki aproposa da egile desberdinen artean sinergiak eraikitzeko, eta horiek behar bezala antolatzen badira, negozio berriak garatzeko aukerak sortuko dira eta, ondorioz, baita hiri-lurraldeetako lehiakortasun osoa ere.

TODOS LOS CAMINOS LLEVAN A ALGÚN LADO, LOS NUESTROS LLEVAN AL FUTURO



Inventemos el futuro

Durante 90 años en la industria energética, en Repsol hemos aprendido que la eficiencia, anticipación y las nuevas soluciones son clave. Es por eso que nuestra transformación en un proveedor multienergía ya está bastante avanzada para satisfacer tus necesidades hoy y mañana.

Descubre más en repsol.com



4.3 SAIOEN AURKEZPENA

HASIERAKO SAIOA

 Otsaila 20

 09:00 - 09:40h

 Hall Barria

SUM Bilbao 19 hiri-mugikortasun ereduak jasangarriagoak egiteko gaitasuna duten eragile publiko eta pribatuen **topagune eta hausnarketa-tokia** izatea bilatzen duen Biltzarra da. Hori dela eta, hasierako saioan, entitate antolatzaileak Bilboko hiriaren gobernantza-sistema osatzen duten erakunde **autoritate**-ordezkariekin batera parte hartu zuten. Horrela, aho batez adierazi zen elkarriketa-kanalak eta **erakundeen arteko lankidetz**a-kanalak eraikitzen jarraitzeko beharra, Garapen Jasangarriako

Helburuekin bat datozen mugikortasunaren esparruko estandar komunak ezartzeko xedearekin. Zentzu honetan, Biltzar hau ospatzearen ekimena zoriondu da, alderdi interesatuen arteko lankidetzarako aukera ezin hobea eskaintzen duelako. Azkenik, **tokiko gobernuek** jasangarritasunerako trantsizio-prozesuetan lider gisa duten papera azpimarratu zen, herritarrenganako hurbiltasuna eta XXI. mendean hiriek duten eginkizuna dela eta.

Aurkezlea:



VANESSA SÁNCHEZ
Kazetaria

PARTE-HARTZAILE

Hizlariak:



IÑIGO URKULLU
Lehendakaria



HUGO MORÁN
Ingurumeneko estatu-idazkaria, Espainiako Gobernua



JUAN MARI ABURTO
Bilboko alkatea



ABEL CABALLERO
Spainiako Probintzien eta Udalerrien Federazioko (FEMP) presidentea eta Vigoko alkatea



IMANOL LANDA
Euskadiko Udalen Elkarteko (EUEL) presidentea eta Getxoko alkatea



EMILIANO LÓPEZ
Presidente exekutiboa, Petronor



HIRI-MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN INGURUKO JOERAK, ERRONKAK ETA AUKERAK

1. ARDATZA

Otsaila 20

09:40 - 11:00h

Hall Barria

1. SAIOA

HITZALDIAK

"Garraioaren sektoreak mundu mailako emisioen % 23ren arduraduna da eta ibilgailu partikularrak emisio horien % 60-70rena. Bestalde, munduko populazioaren % 50 baino gehiago hirietan bizi da eta egunero jende gehiagok aukeratzen du bertan bizitzea. [...] Lortu behar dugu bizitza hirietan

oparoa izatea ekonomiari dagokionez, aldi berean, ongizatea bermatzen eta bizimodu eraginkorrak sustatuz. Horretarako guztirako, funtsezkoa da lanerako, hezkuntzarako, erosketetarako eta aisialdirako sarbide erraza, jasangarria eta kostu gutxikoa eskaintzea."

Robin Chase, The City Fix (2015)

Biltzarren lehenengo saioan, hizlariek mundu mailako mugikortasun-eremuan dauden erroka eta joerei buruz duten ikuspegia partekatu zuten. Lehenik eta behin, **Europako Batzordeak** Europako hirietan mugikortasun-ereduen jasangarritasuna neurtzeko **zehaztu dituen helburu eta adierazleak** partekatu ziren. Ondoren, **planetaren hirigintza**-prozesu azkarrak berekin dakarren aukera eta errokak identifikatu ziren, eta garraio publikoa azpimarratu zen hiri jasangarri eta inklusiboen eraikuntzarako elementu estrategiko gisa. Hirugarrenez, hirien gainean eragina duten **garraioaren erabileratik ondorioztatutako arazoak** mahaigaineratu ziren, bai eta SUM4All-ek arazo horiei emandako erantzuna

ere. Munduko Bankua da SUM4All plataformaren buru, eta hainbat eragilek hartzen dute parte hartan; erabakiak hartzerako orduan mugikortasun seguru, bidezkoa, eraginkorra eta ingurunerako jasangarria dena bilatzea da haren helburua. Bere aldetik, NBE Habitat-ek **garapen-bidean dauden herrialdeen** egoera azaldu zuen, estatuko eta tokiko gobernuen arteko lankidetzaren beharra nabarmenduz, bai eta hirien arteko elkarrikeria ere, mugikortasun-arloko jardunbide egokiak partekatzeke. Azkenik, saio honetan ere Bilboko kasuari ekin zitzaion, mugikortasun **jasangarriaren egin-kizuna** azpimarratuz hiri bizitzaren ari den eraldaketa berriaren elementu gako gisa.

Moderatzailea:



DIONISIO GONZÁLEZ

Estrategia-zuzendaria, Garraio Publikoaren Nazioarteko Batasuna (UITP)

PARTE-HARTZAILE

Hizlariak:



MATHEW BALDWIN

Mugikortasun eta Garraioaren (DG MOVE) zuzendariorde nagusia, Europako Batzordea



NANCY VANDYCKE

"Sustainable Mobility for All" (SUM4All) ekimenaren sortzailea eta arduraduna, Munduko Bankua



JOSÉ LUIS IRIGOYEN

Garraioaren Praktika Globaleko zuzendari seniorra, Munduko Bankua (2014-2018)



DEBASHISH BHATTACHARJEE

Zuzendaria, Hiri Mugikortasun Unitatea, NBE Habitat



ALFONSO GIL

Bilboko alkateorde eta Mugikortasun eta Jasangarritasun Saileko zinegotzi delegatua

MUGIKORTASUN JASANGARRIAGO BATERAKO ESTRATEGIAK ETA IKASKUNTZAK

1. ARDATZA 📅 Otsaila 20 ⌚ 11:30 - 12:45h 📍 Hall Barria
2. SAIOA 👥 MAHAI-INGURUA

“Hiriak lanean daude hiri-garraioko sistemen eraginkortasuna eta jasangarritasuna hobetzeko, hiri-mugikortasuna sustatu dadin. Ibilgailu partikularrak, trafiko-pilaketa handitzeaz gain, airearen poluzioaren eta giza-desberdintasunen arrazoi garrantzitsuak direlako ere

(ITDP 2017). Herrialdeek eta estatuazpiko gobernuek identifikatu dute garraio publikorako aldaketa modala [...] emisioak murrizteko estrategia gako gisa hiri-mugikortasunaren eta jasangarritasunaren ekitatea handitzen den bitartean.”

New Climate Institute & C40 Cities (2018)

Bigarren saioa mahai-inguruko formatuan burutu zen eta bertan hainbat **alkatek** haien hirietan, hiri-mugikortasun jasangarriko eredueta igarotzeko, ezartzen ari diren **jardunbide egoki** eta estrategiak **partekatu** zituzten. Valladolid-en **mugikortasun elektrikoa** sustatzeko hainbat proiektu burutzen ari dira, hala nola ibilgailu elektrikoaren promoziorako **pizgarriak** eskaintzea edo kargatzeko hiri-puntu berriztapena. Cuenca-k, bere aldetik, mugikortasun-arrazoi buruzko diagnostikoa sortzerako orduan, **herritarren partaidetza** nabarmen-

du zuen, haien iritzia udalaren estrategian sartzeko helburuarekin. Vitoria-Gasteiz-ek, Europako Hiri Berdeak, **oinezkoentzako gu-
neak egitea eta motorrezko ibilgailu pribatuak murriztea** (gaur egun hiri-lekualdaketa kopuru nagusia) mugikortasun aktiboari mesede egin ziola adierazi zuen. Azkenik, Jinja-k **erdi-mailako hirien** eginkizuna aldarrikatu zuen, alde batetik, hiri handien **pilaketak** murriztea ahalbidetzen dutelako eta, bestetik, haien tamainak mugikortasun-erronkei erantzutea errazten dielako.

PARTE-HARTZAILE

Moderatzailea:



MÓNICA SOLÓRZANO

MÓNICA SOLÓRZANO, Latinoamerikako Hiri, Udalerri eta Udalerrien Elkarten Federazioko (FLACMA) Idazkaritza exekutiboaren zuzendari teknikoa eta Mugikortasunari buruzko Latinoamerikarako Praktika-komunitatearen koordinatzailea

Hizlariak:



GORKA URTARAN

Vitoria-Gasteizko alkatea



ÁNGEL LUIS MARISCAL

Cuencako alkatea



MAJID BATAMBUZE

Jinjako alkatea



ÓSCAR PUENTE

Valladolideko alkatea

BERRIKUNTZA ETA TEKNOLOGIA MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN MOTOR GISA

2. ARDATZA 📅 Otsaila 20 ⌚ 12:45 - 13:45h 📍 Hall Barria
3. SAIOA 👤 HITZALDIAK

“Mugikortasunaren industriak ez ditu alde batera utzi laugarren industria-iraultzak bultzatutako berrikuntza eta garapen teknologikoak. Garapen teknologiko garrantzitsu horiek,

Big Data, adimen artifiziala, IoT eta energia trinkoko forma berrien sormena barne, mugikortasun-aukera berriak sortu dituzte.”

Arthur D. Little & UITP (2018)

Hiri-mugikortasun jasangarriaren etorkizuna, neurri handian, teknologiaren eta berrikuntza aplikatuaren aurrerapenaren arabera izango da. Zentzu horretan, saio honetan hizlariak **berrikuntzak** jasangarritasunerako mugikortasun-ereduen **elementu eraldatzaile** bezala duen **eginkizunari** buruzko ikuspegia eman nahi izan zuten. Lehenik eta behin, hiri-mugikortasun jasangarrian ezartzen ari diren mega-joeak aurkeztu ziren: **Mobility as a Service (MaaS), mugikortasun partekatua, elektrikoak, konektatua eta autonomoa**. Halaber, garraio publikorako inbertsioaren garrant-

zia azpimarratu zen, baita haren integrazioarena **ekonomia digitalean** ere, MaaS plataformen parte izanik. Eguneratutako **parametro globalak estandarizatzearen** beharra ere gogoratu zen, teknologien aurrerapenen arabera, mugikortasun jasangarriko ereduak lehiakorrak izan daitezen. Azkenik, AMETIC-ek bere **#Vehicles7YN** Europako Think Tank-a joera hauen segimendua egiteko eragile arduradun gisa aurkeztu zuen, mugikortasun ekosistemak eta haren balio-kateak aztertuz, etorkizunerako agertoki posibleak definitzeko.

PARTE-HARTZAILE

Moderatzailea:



JAVIER COLETO

Industria eta Garraioa dibisioko merkatu-zuzendaria, Tecnalia

Hizlariak:



MARKO JAVORNIK

Mobility&Travel-eko presidenteorde eta kudeatzaile nagusia, Comtrade Digital Services



GUIDO DI PASQUALE

Berrikuntza eta ezagutza zuzendariordea, Garraio Publikoaren Nazioarteko Batasuna (UITP)



DOLORES CÁRDENAS

DoTecnologia eta Corporate Venturing Zuzendaritzan Mugikortasun aholkularia, Repsol



PEDRO MIER

Presidentea, AMETIC

MUGIKORTASUNERAKO HIRIGOBERNANTZA

1. ARDATZA

Otsaila 20

15:15 - 16:45h

A1 aretoa

4. SAIOA

MAHAI-INGURUA

“Hiri-mugikortasuneko sistemen erronkei ekiteko erronka politikotzat hartu behar dira, kontsulta, erabakia eta inplementazioa behar dituztenak, teknika “egokiak” behar dituzten arazo etiko soilak bezala

ikustearen orde. Beraz, hiri-gobernantza, instituzio- eta araudi-esparruak barne, hiri-mugikortasuneko sistema jasangarriak eta, hortaz, hiri jasangarriak garatzeko giltzarria da.”

ONU Hábitat (2013)

Mahai-inguru honetan hainbat latitudeetatik etorritako mugikortasun-arloko eragile ezberdinek **lankidetza-guneen eraikuntzari** buruz duten ikuspegia azaldu zuten, hiri-mugikortasun jasangarriko ereduak finkatzen dituzten gobernantza-mekanismoak sustatzeko. Zentzu horretan, hainbat atribututan oinarritutako **Indiako hirien** mugikortasun-politiketan ikuspegi estrategiko bat barneratzeko beharra azaldu zen. Horietako bat **erakundeen arteko “Komunikazioa eta Koordinazioa”** izan zen, interes

publikoko erabakiak arrazoizkoak izateko eta gizarte osoari mesede egiteko. Bestalde, **Mexiko Hiriko** hiri-mugikortasun eredu berria aurkeztu zen, oinezko eta txirrindulariei zuzenduta dagoena, **sektore pribatu, gizarte zibila eta gobernuaren arteko lankidetza** adibide gisa. **Donostia eta Irungo udalen ikuspegitik**, azken urteetan **herritarren bizikaltate** hobetze aldera bideratutako hiri-mugikortasun ereduak finkatzeko ezarri diren neurriak nabarmendu ziren.

PARTE-HARTZAILE

Moderatzailea:



JOAN CLOS

NBEko idazkariorde nagusia eta zuzendari exekutiboa, NBE

Hizlariak:



SHREYA GADEPALLI

Programaren koordinatzailea Hego Asian, Garraio eta Garapen Politiken Institutua (ITDP)



LAURA BALLESTEROS

Mujeres en Movimiento ekimenaren idazkari teknikoa eta Plangintza-idazkariorde ohia, Mexiko Hiriko Mugikortasun Idazkaritza



JOSÉ ANTONIO SANTANO

Iruneako alkatea



ENEKO GOIA

Donostiako alkatea

MUGIKORTASUNERA ORIENTATUTAKO HIRIPLANGINTZA

1. ARDATZA Otsaila 20 15:15 - 16:45h A3 aretoa
5. SAIOA HITZALDIAK

“Mugikortasuna azpiegituren eta zerbitzuen garapeneko kontua izateaz gain, hiri-plangintza osoa baitan daukan tes-tuinguru sistematikoan kokatu

*behar da, hiri-desplazamen-
duen muga sozialak, ekono-
mikoak, politikoak eta fisikoak
gainditzeko.”*

ONU Hábitat (2019)

XXI. mendeko hirien mugikortasun arloko paradigma aldaketak zeharo lotuta dau-de hiri-plangintzarekin, hiri-mugikortasun jasangarriko eredu berriek **hirien** antola-mendua herritarrengan eta ingurumenean **zentratuz berriz planteatzea** dakartzate-lako. Horrela, saio honetan **Transit Oriented Development (TOD) hirigintza berdea-rekin** elkartzeko ereduaren defentsa egin zen. Eredu horrek berekin dakar oinezko eta txirrindularien zirkulazioa erraztea motordun ibilgailuen aurrean; aldi berean, hirian birziklapena eta elementu berdeen

integrazioa faboratzen da (parkeak, green roof-ak, etab.). Bestalde, **“super-sagarren”** kontzeptua azaldu zen: ibilgailuen trafikoa murrizteko irtenbide berritzailea; horren emaitza kutsadura akustiko eta aireko kut-sadura gutxiago eta **gune gehiago oinezko eta txirrindularientzat** lortzea da. Bukatze-ko, **MobiliseYourCity Partnership**-a aurkez-tu zen, **nazioarteko lankidetzaren agentzien arteko ituna**. Horien helburua garapen-bi-dean dauden herrialdeen hiri-mugikortasun arloko plan integralak hobetzea da.

PARTE-HARTZAILE

Moderatzailea:



JESÚS LOSADA

Zuzendari nagusia, Eusko Jaurlaritzako Inguru-men Jarduketarako Sozietate Publikoa (IHOBE)

Hizlariak:



ROBERT CERVERO

Irakasle emeritua Eskualde eta Hiri gara-penerako Departamentuan, Kaliforniako Unibertsitatea, Berkeley



SALVADOR RUEDA

Zuzendaria, Bartzelonako Hiri Ekologiako Agentzia



SANDRA LAQUELLE

Aholkularia eta programa-zuzendaria, Mobilise Your City Partnership

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ONURA SOZIOEKONOMIKOAK

3. ARDATZA

Otsaila 20

17:15 - 18:45h

A1 aretoa

6. SAIOA

HITZALDIAK

Jasangarritasuna alderdi ekonomikoa-, ingurune- eta giza-alderdiak batzen dituen kontzeptua da. Hortaz, ikuspuntu jasangarriak onura sozialak, hala nola trafikoari lotutako heriotzak, eta epe luzerako garapen ekonomikoko helburuak hartzen ditu barne. ITDPren arabera [...], hiri-ga-

rraio jasangarriak "ondasune-tara, zerbitzuetara, lan-merka-tuetara eta giza-interakzioetara sarbidea eskaintzen du eta, aldi berean, ingurune-, giza- eta ekonomia-zerbitzu eta sistemetarako epe laburrerako eta luzerako ondorio kaltegarriak murrizten ditu".

Carnegie Endowment for International Peace (2013)

Mugikortasun jasangarriko hiri-ereduak hartzeak hirientzat **onura sozioekonomiko** ugari sortzen ditu hainbat ikuspegietatik. Saio honetan mugikortasun aktiboaren, garraio publikoaren eta mugikortasunean teknologia berriak sartzearen sustapenak hiriaren garapen jasangarrian nola eragiten duen azaltzen duten adibide batzuk aurkeztu ziren. Alde batetik, Bostonen ibilgailu autonomoekin egindako esperimientuek hiriak jasaten dituen **bide-segurtasun** arazo

larriak konpontzeko helburua dutela adierazi zen. Bestalde, Hildalgoko (Mexikoko estatua) Gobernuaren kasuak mugikortasun modu ezberdinak pertsonen lekualdaketari mende egiten dioten sistemetan antolatzearen komenigarritasuna islatzen du, **ekitate eta sarbide unibertsaleko baldintzekin**. Azkenik, garraio publikoaren erabilera hirietako airearen kalitatea hobetzeko eta, hortaz, **osasun publikoa** hobetzeko tresna bezala defendatu zen.

PARTE-HARTZAILE

Moderatzailea:



ANDRÉS MONZÓN DE CÁCERES

Garraioan katedraduna Bide, Kanak eta Portuen Eskolan, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa

Hizlariak:



KRIS CARTER

Presidentekidea, Bostongo New Urban Mechanics Bulegoa



SÉRGIO AVELLEDA

Hiri Mugikortasuneko zuzendaria, WRI Ross Center for Sustainable Cities



ALBERTO RAMÍREZ

Mugikortasuneko zuzendaria, Hildalgoko estatuko Mugikortasun eta Garraioko Idazkaritza (Mexiko)

HIRI INKLUSIBOAK LORTZEKO MUGIKORTASUNA

1. ARDATZA

Otsaila 20

17:15 - 18:45h

A3 aretoa

7. SAIOA

HITZALDIAK

Garraiorako sarbide gabeziak, batez ere herrialde garatutako hiri-inguruko gunetan eta garapenean dauden herrialdeen auzo baztertuetan, sarritan isolamendua eta ekonomia- eta arraza-segregazioa larriagotzen ditu. Hala ere, laguntza nahikoarekin, hiriak gai dira garraioko eta hiri-plangintzako

politika barneratzaileak sustatzeko eta euren garraio-sistemak eraldatzeko. Garraio publikoa funtsezkoa da politika horientzat, sarbidea hobetzen eta arreta berezia jartzen emakumeen, gazteen, desgaitasunak dituzten pertsonen, helduen eta beste talde behartsuen eskubideei.

Hiri eta Tokiko Gobernu Batuak – CGLU (2018)

Hiri-mugikortasun jasangarria puntu gakoa da **inklusio soziala** faboratzeko, pertsona guztiak hirian barrena mugitzeko duten eskubiderako sarbidea ahalbidetzen duelako. Saio honetan mugikortasun inklusiboa sustatzeko **genero-ikuspegiaren** eginkizuna nabarmendu zen. Lehenik eta behin, nabarmendu zen emakumeak direla garraio publikoa gehien erabiltzen dutenak, nahiz eta haientzat arriskutsuagoa izan, **sexu-jazarpen** egoerak jasan ahal dituztelako.

Halaber, adierazi zen emakumeak mugikortasun-**behar bereziak** dituztela, normalean **etxeko zereginetaz** arduratzen direlako; hor-taz, ibilbide laburragoak baina ugariagoak egiten dituzte. Hori dela eta, ondorioztatu zen **garraio publikoa** ez dela generoaren-ganako neutrala izan behar. Bestalde, Santa Anako (Costa Rica) udalerriko jardunbide egoki bat aurkeztu zen, non emakumeak **bizikletaren bidezko mugikortasunari** esker ahalduzten ari diren.

PARTE-HARTZAILE

Moderatzailea:



MIGUEL ÁNGEL GÓMEZ VIAR

Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko foru Saila, Bizkaiko Foru Aldundia

Hizlariak:



KARLA DOMINGUEZ

Generoan aditua, Munduko Bankua



HEATHER ALLEN

Genero eta Hiri-garraioan aditua den aholkularia



GABRIELA COB

Santa Anako Mugikortasun Aktiboa eta Jasangarria Programaren sustatzailea (Costa Rica)

AUTOMOBILGINTZA ETA GARRAIO JASANGARRIAREN ETORKIZUNA

2. ARDATZA Otsaila 21 08:30 - 09:20h A1 aretoa
8. SAIOA HITZALDIAK

“Garraioaren etorkizuna mugikortasun etengabea da, non garraio modu guztiak konektaturik dauden garraio moduen sare bakar eta integralean, garraio publikoa elementu nagusia izanik. Etorkizun hori oraintxe geratzen

ari dira. Mugikortasun partekatuen ideian adierazita ikus dezakegu, zeinean maileguko ibilgailuek eta bizikletek ibilgailu pribatuak ordezkatzeko dituzten. [...] Ibilgailu autonomoak etorkizunaren zati dira ere, garraio publikoarekin bat.”

Doug Kaufman, TransLoc-en CEO

Automobilgintza eta garraioaren industriak mugikortasunaren arloan **paradigma aldaketa** bati aurre egiten dio, **teknologia berrien** sorreran, aldaketa sozial eta demografikoetan, **hirien pisu gero eta garrantzitsuagoan** eta **jasangarritasunerako** bidean oinarritzen dena. Zentzu honetan, joera handi gisa honako hauek antzematen dira: mugikortasun elektrikoa, konektatua, autonomia, partekatua eta zero emisioa. Horiek horrela, saio honetako hitzaldiek, Espainiako industria lehiakorra izaten jarraitzeko, **ingurumenerako inpak-**

tu baxuko ibilgailuen produkzioan aurrera egin behar duela azpimarratu zuten. Bestalde, Kapsch-ek **trafikoaren kudeaketa** optimizatzeko eskaintzen dituen irtenbideak nabarmendu ziren, azpiegituren erabilera mugikortasun-eredu berrien arabera arrazionalizatzeko. Azkenik, Alsa-k haren **produktuak** hiri-mugikortasun jasangarriko eredu berrietara **egokitzearen** azalpena egin zuen, hala nola haren flotetan autobus elektrikoak edo erregai alternatiboak erabiltzen dituzten autobusak sartzea.

PARTE-HARTZAILE

Moderatzailea:



MIKEL LORENTE

Zuzendari teknikoa, ACICAE / AIC-Automotive Intelligence Center

Hizlariak:



MIGUEL ÁNGEL ALONSO

ALSAko Mantentze eta Ingeniaritza sailko zuzendari nagusia



JAVIER AGUIRRE

Presidentea/CEO, Kapsch TrafficCom Espainia & Portugal



MARIO ARMERO

Presidenteorde betearazlea, Espainiako Auto eta Kamioi Fabrikanteen Elkartea (ANFAC)

I+G+B MUGIKORTASUN JASANGARRIKO EREDU BERRIETAN

2. ARDATZA

Otsaila 21

09:20 - 10:10h

A1 aretoa

9. SAIOA

HITZALDIAK

“Telematikan oinarritutako neurri berritzaileek frogatu dute erabilgarriak direla tokiko garraio-politikak inplementatzeko. Zenbait ekimenetan, ITSak (Garraio Adimenduneko Sistemak) erabili dira trafikoaren fluxua ebaluatzeko,

urruneko zaintza burutzeko eta erabiltzaileei bat-bateko informazioa eskaintzeko. ITS teknologiari dagozkion ezagutza eta esperientzia funtsezkoak dira mugikortasun plan baten inplementazioa bermatzeko arazorik gabe.”

ICLEI (2014)

Ikerketa eta teknologia berrien garapena prozesu gakoak dira hiri-mugikortasun jasangarrirako **irtenbide berritzaileak** sortzeko. Horretarako, saio honetan, mugikortasuna goitik behera aldatzen ari diren tresna batzuk aurkeztu ziren. Lehendabizi, Vicomtech-ek martxan jartzen ari den **gidatze adimentsuko sistemei** (Driver Monitoring Systems - DMS) buruzko abantailak aurkeztu ziren, bide-segurtasuna hobetzeko istripu-arriskuen prebentzioaren bitartez. Ondoren, IBM Irlanda-k, hainbat aliatuen sare handiarekin lankidetzan, garatutako

adimen artifizialean oinarritutako aplikazioetako batzuk aurkeztu ziren. Aplikazio hauen balioa informazio-kantitate handiak kudeatzeko gaitasunean datza, geroago mugikortasun-patroiak azaltzen dituzten faktoreen bilaketa ahalbidetzen dituztenak. Bukatzeko, Irizar e-mobility-k **ibilgailu %100 elektrikoen fabrikazioaren** arloan zein kargatze, trakzio eta energia-biltegi-ratzeko azpiegituren fabrikazio eta instalazioaren arloan eskaintzen dituen irtenbideak aurkeztu ziren.

PARTE-HARTZAILE

Moderatzailea:



LUZ PÉREZ

Euskadiko Mugikortasun eta Logistika Klusterraren presidentea eta logistika zuzendaria, Uvesco Taldea

Hizlariak:



OIHANA OTAEGUI

Garraio Adimenduneko Sistemen Sailko (ITS) zuzendaria, Vicomtech



HECTOR OLABEGOGEASKOETXEA

Zuzendari nagusia, Irizar emobility



GAVIN SHORTEN

IBM Ireland Innovation Exchange-ren zuzendaria, IBMko Laborategia - Irlanda

HIRI-MUGIKORTASUNA ETA ENERGIA BERRIAK

2. ARDATZA Otsaila 21 09:20 - 10:10h A3 aretoa
10. SAIOA HITZALDIAK

“Hiriek trantsizioa egin beharko dute erregai fosilen mende egotetik karbono eduki txikia duten “hiri elektrikoak” bezala jardutera. Trantsizio honek hiru garapen teknologiko mota dakartza: erregai fosilekin da-

biltzan motorrak eta gailuak elektrikoetara aldatzea, elektrifikazioa deritzoguna; elektrizitatea sortzea iturri jasangarrietatik edo erregai fosilik gabe, eta energia-eraginkortasuneko neurriak inplementatzea.”

WRI Ross Center for Sustainable Cities (2019)

Hiri-mugikortasun jasangarriak nahitaez igaro behar da **deskarbonizazio**-prozesu batetik, non erregai fosilak **gutxiago kutsatzen duten energia-iturriengatik** ordezkatzen diren. Saio honetan trantsizio horren finkapenean eragina duten hainbat eremuei ekin zaie. Modu horretan, IBIL aurkeztu zen **hiri-kargatze zerbitzuen** enpresa lider gisa, haien ibilgailuak kargatzeko azpiegiturarik ez duten gidarien eskaria betetzeko. Bere aldetik, CAF-ek **hidrogeno-pilaren** onurak aurkeztu zituen, ibilgailuaren autonomia-ren, bizitza erabilgarriaren eta errendimen-

duaren areagotzean oinarritzen direnak eta, aldi berean, honen kargatze-denbora eta prezioa murrizten duenak. Halaber, bateria horien produkzioak **ingurumenean inpaktu txikienik posiblea** izatea bermatzeko beharra nabarmendu zen. Azkenik, mugikortasun elektrikoaren finkapenak beste enpresentzako **negozio-aukerak sor** ditzakeela adierazi zen. EV Connect prozesu hori errazten saiatzen ari da, haren hodeiko plataformaren bidez, balio-kate osoko erabiltzaile eta enpresak harremanetan jartzen dituenak.

PARTE-HARTZAILE

Moderatzailea:



IÑIGO ANSOLA

Zuzendari nagusia, Energiaren Euskal Erakundea(EVE)

Hizlariak:



JORDAN RAMER

Zuzendari exekutiboa, EV Connect



IMANOL ITURRIOZ

I+G sailaren burua, CAF Taldea (Erai-kuntza eta Trenbide Laguntzaile)



AITOR ARZUAGA

Zuzendari nagusia, IBIL

STARTUP-EN EKOSISTEMA ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIA

3. ARDATZA

Otsaila 21

10:10 - 11:10h

A1 aretoa

11. SAIOA

HITZALDIAK

"Hiri-mugikortasuneko eskaera gero eta handiagoaz gain, mugikortasun-beharrak aldatzen ari dira. Lekualdatzeko ohituraren aldaketek, egokitasuna, abiadura eta aurreikusgarritasuna handitzeko zerbitzuen eskaerak, baita indibidualizazio aukerek eta jasangarritasunak

ere, mugikortasun-zerbitzuen eskaintza handitzea zein merkaturak eraldatzea eskatzen dute, zeinean beste sektoretan adituak diren eragileek aukerak bilatzen dituzten euren papera burutzeko mugikortasun-ekosistema handitu honetan."

Arthur D. Little & UITP (2013)

Saio honetan hiri-mugikortasun jasangarriari lotutako garapen ekonomikoa duten enpresen ordezkariak eman zitzaizkien ahotza. Zentzu horretan, mugikortasun paradigma berriek **negozio-aukera berriak** sortzen dituzte eta hiri-mugikortasun jasangarrian diharduten startup-en sorrera bideratzen dute. Horrela, **BetterPoints**-ek proposatzen duen **gizarte-teknologia** aurkeztu zen herritarren **jokabide-aldaketari** bidea emateko, haien hirietatik modu jasangarrian mugitzea aukeratzen duten pertsonak saritzen dituen aplikazio baten

bitartez. Jarraian, **IoT (Internet of Things)** teknologiak mugikortasunaren esku jartzen dituen aplikazio potentzialak zerrendatzeaz gain, **Imatek**-ek bere Smart Action Plan for Sustainable Urban Mobility proiektua aurkeztu zuen Bilboko Udalarekin batera, zeinaren helburua hiriaren kutsadura akustikoa murriztea den. Azkenik, **NextBike**-k **bizikletaren** garrantzia azpimarratu zuen hiri askotako mugikortasun jasangarriko ereduen **elementu gako** gisa, hiriaren **sistema multimodaletan** barneratzen delako, **lehen eta azken miliako** zerbitzuak eskainiz.

PARTE-HARTZAILE

Moderatzailea:



LUIS BERASATEGI

Koordinatzailea, Bilbao AS Fabrik

Hizlariak:



DAN GIPPLE

Bazkide sortzailea eta zuzendari exekutiboa, BetterPoints LTD



JOHN ALEXANDER RAMIREZ

Nazioarteko negozioen kudeatzailea, Next Bike



ITZIAR SANTXEZ

Zuzendari exekutiboa, Imatek Advanced Technologies

MUGIKORTASUN JASANGARRIA "SMART CITY" EDO HIRI ADIMENTSUETAN: METROPOLIEN ETORKIZUNERAKO GAKO ESTRATEGIKOA

4. ARDATZA 📅 Otsaila 21 ⌚ 10:10 - 11:10h 📍 A3 aretoa
12. SAIOA 👥 MAHAI-INGURUA

"Mugikortasun adimentsua garrarioa konektatuagoa, eraginkorragoa eta malguagoa izatean oinarritzen da. Gaur egun hiri-guneen hazkundearen oinarria da, eta guztia har dezake barne, garraio publikotik eta autoak eta bizikletak partekatzeke zerbitzuetatik automobil pribatu

tuetara eta ibilgailu komertzialetara. Orokorrean, mugikortasun adimentsuak pertsonak eta ondasunak laguntzen ditu modu eraginkorragoan eta efikazagoan mugitzen, guztiek, bertakoek zein epe laburrerako bisitariek eguneroko esperientzia hobea izan dezaten."

Christian Lackner, NXP (2018)

Hiriak eta haien metropoli-guneak **lurralde adimentsu** bihurtzen ari dira teknologia berriak eskaintzen dituzten abantaila onura ateratzen dizkietelako. Saio honetan mugikortasunari lotutako **arazoak teknologia adimentsuak erabiliz konpontzeko** gauzatzen ari diren esfortzuak azaldu ziren. Metropoli-ikuspegi batetik, "Etorkizunerako begirada bat" proiektua aurkeztu zen, non **ibilgailu autonomo eta konektatuak Bilboko metropoli-gunean** izango dituen inpaktuak eszenaratzen diren. **Durangoko**

Udaletik, mugikortasun arloaren barruan dituzten proiektuak gailendu ziren, fokua teknologia berrietan jarritz. Bere aldetik, **ERTICO**-k mugikortasun adimentsuaren garrantzia azpimarratu zuen **hirietako erdigune dentsifikatuen** arazoei aurre egiteko, gaur egun **IoT eta Big Data**-k eskaintzen dituzten abantailak identifikatuz. Bukatzeko, **Euskadiko parke teknologikoen** potentzialari ekin zaio, **enplegatuta dituzten 17.000 pertsonen lekualdatzeak** suposatzen duten inpaktua gutxiagotzeko.

PARTE-HARTZAILE

Moderatzailea:



PILAR ELEJOSTE

DeustoTech Mobility-ko arduraduna, Deustuko Unibertsitatea

Hizlariak:



IDOIA POSTIGO

Bilbao Metropoli-30-ko zuzendariorde nagusia



FRANÇOIS FISCHER

Berrikuntza eta Garapeneko kudeatzaile seniorra, ERTICO - ITS Europe



AITZIBER IRIGORAS

Durangoko alkatea



ITZIAR EPALZA

Euskadiko Parke Teknologikoen Sareko zuzendari nagusia

PARADIGMA ALDAKETAK ETA MUGIKORTASUN EREDU BERRIAK

3. ARDATZA

Otsaila 21

17:15 - 18:45h

A1 aretoa

13. SAIOA

HITZALDIAK

“Garraio garbia, karbonizazio baxukoa eta eraginkorra eskaintzea funtsezkoa da hiriei aurre egiten dieten erroka asko konpontzeko, aireko poluzioa, garraio-pilaketa eta negutegi efektuko gasen emisioak barne. Ibilgailu elektrikoak, ibilgailu automatizatuak (AV), garraio-sistema adimentsuak, aparkale-

ku-sistema adimentsuak, azken miliako logistika, garraio publiko berrikuntzak eta Mobility as a Service-a hurrengo hamarkadaren paradigma nagusia izatea espero da. Batera, berrikuntza teknologiko horiek ahalmena dute hiri-erroka nagusiei aurre egiteko eta hiriko mugikortasuna eraldatzeko.”

Navigant Research (2018)

Saio honetan mugikortasunaren arloko paradigma aldaketatik ondorioztatzen diren efektuak aztertu ziren **energia-sektorearen** eta **tokiko kudeaketaren** ikuspegitik. Tokiko gobernuen eskutik, **bi udalerrien esperientziak** aurkeztu ziren. San José-ren kasuan (Costa Rica), **oinezkoentzat egindako guneetan** oinarritutako mugikortasun-politikak partekatu ziren. Politika horiek hiriaren erdigunean gauzatzen ari dira hiri-gune hori modu jasangarrian suspertzeko helburuarekin. Rivas Vaciamadrid-en kasuan (Espainia), honen **mu-**

gikortasun-ereduak Madril kapitaleko mugikortasun arloko paradigma aldaketarekin duen erlazioa aztertu zen, bai eta aldaketa hauek dakartzaten erroka ere. Espainiako Sare Elektrikoak, bere aldetik, **Mugikortasun Elektrikoko Gida** aurkeztu zuen, FEMP eta IDEA-rekin lankidetzan idatzi dutena. Gida honen helburua mugikortasun mota hori sustatzea da, tokiko gobernuari informazioa emanez. Halaber, azpimarratu zen **sistema elektrikoak badagoela prest** mugikortasun elektrikoan oinarritutako paradigma berriaren hedapenerako.

PARTE-HARTZAILE

Moderatzailea:



RAFAEL BARBADILLO

Espainiako Garraio-Konfederazioaren presidentea (CONFEBUS)

Hizlariak:



DANIEL JAIKELE

San José udalerriaren zuzendariordea (Costa Rica)



PEDRO DEL CURA

Rivas Vaciamadrid-eko alkatea



SUSANA BAÑARES

Eskaeraren Kudeaketa eta Sare Adimentsuen sailburua, Espainiako Sare Elektrikoa (REE)



HIRI-MUGIKORTASUN JASANGARRI BATERAKO ITUNA

📅 Otsaila 21

🕒 11:30 - 13:05h

📍 Hall Barria

👥 MAHAI-INGURUA

SUM Bilbao 19 Biltzarraren amaierako puntua goi-mailako elkarrizketa batek jarri zuen. Hiri-mugikortasun jasangarriko ereduenganako paradigma aldaketen arloan **influentzia handia duten eragile** ezberdinen ordezkariak hartu zuten parte elkarrizketan. Mahai-inguru honetan gure gizarteek hiri-mugikortasun jasangarrira bideratutako aurrerapenak egiteko beharra berretsi zen, **ingurumeneko inpaktuaren gaineko murriztearekin** bat datorren **trantsizio energetikoko** prozesu baten bitartez. Zentzu honetan, azpimarratu zen teknolo-

gia berriak oraindik landu behar direla automobilgintzaren **balio-kate osoan zehar** benetan **zero emisio** lortu ahal izateko. Halaber, elkarrizketa honetan mugikortasun arloko paradigma aldaketen prozesuak **akordio publiko-pribatuen** bidez eta eragile guztiek bete dezaketen, herritarrak barne, **erreferentziazko esparru errealisten** barruan egitearen garrantzia nabarmendu zen. Azkenik, parte-hartzaile guztiek adierazi zuten hiri-mugikortasun jasangarriaren alde lan egiten jarraitzeko nahia.

Moderatzailea:



MANU ÁLVAREZ

Korrespontsal ekonomikoa, El Correo

PARTE-HARTZAILE

Hizlariak:



JUAN MARI ABURTO

Bilboko alkatea



ANTONIO BRUFAU

Presidentea, REPSOL



PERE CALVET

Ferrocarrils de la Generalitat de Catalunya-ko (FGC) eta Garraio Publikoaren Nazioarteko Elkarteko (UITP) zuzendaria



ROLAND RIES

Estrasburgoko alkatea eta CGLUko Mugikortasun-Praktiken Komunitateko presidentekidea



EMILIO TITOS

Zuzendari nagusia, Espainiako Mercedes-Benz-eko fabrika Vitoria-Gasteizen



BILBOKO ALKATE JAUNAREN ATXIKITZE-EKITALDIA MOBILITY CHAMPIONS COMMUNITY-RA

📅 Otsaila 21

🕒 13:05 - 13:15h

📍 Hall Barria

SUM Bilbao 19-ren hiri-mugikortasun jasangarriaren aldeko **itunak** sustatzeko izaerarekin bat etorri, Biltzarra bukatzean, Bilbao Mugikortasuneko Champions Komunitatera atxiki dela ofizial egin zen. Komunitate hau, Hiri eta Tokiko Gobernu Batuak (**CGLU**) eta Garraio Publikoaren Nazioarteko Batasunak (**UITP**) sustatua, goi-mailako plataforma bezala funtzionatzen du. Bertan, Alkate, Ministro eta bestelako eragileek **mugikortasunaren esparruko erronka eta irtenbideei buruzko estrategia eta esperientziak** partekatzen dituzte oraingo eta

etorkizuneko belaunaldiek hiri inklusiboago, eraginkorrago eta erresilienteagoetaz goza dezaten. **Bilboko** hiriari Mugikortasuneko Champions Komunitatearen parte izateko gonbidapena honen **lidergoa** eta hiri jasangarriago bat bermatzeko ardura aitortzeko egiten da, herritarren bizi-kalitatea areagotuz. Ekitaldi honetan, Juan Mari Aburto, Bilboko Alkatea, modu formalean sartu zen Mugikortasuneko Champions Komunitatean, Pere Calvet eta Roland Ries presidentekideen aurrean.

PARTE-HARTZAILE



JUAN MARI ABURTO
Bilboko alkatea



ROLAND RIES
Estrasburgoko alkatea eta CGLUko Mugikortasun-Praktiken Komunitateko presidentekidea



PERE CALVET
Ferrocarriils de la Generalitat de Catalunya-ko (FGC) eta Garraio Publikoaren Nazioarteko Elkarteko (UITP) zuzendaria

4.4

BILBOKO
ADIERAZPENA

SUM Bilbao 19 Biltzarrak hiri-mugikortasun jasangarriarekin lotutako sektore pribatuko 580 ordezkari baino gehiagoren, sektore publikoko 300 ordezkari baino gehiagoren eta ikerketa-zentro eta elkarten 150 ordezkari baino gehiagoren topaketa faboratu zuen. Testuinguru honetan, Bilboko Adierazpenak ezin izan zuen haren sinadurarako agertoki hoberik izan. Adierazpen hori hiri-mugikortasun jasangarriko ereduak finkatzea ahalbidetzen duten partekatutako helburuen inguruan diharduten eragile publiko eta pribatuen arteko ituna bultzatzen duen dokumentu aitzindaria da.

“Hiri-mugikortasun jasangarriagorantz” Adierazpenak Hiri Agenda Berriarekin, **2030 Agenda-rekin eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat datozen 10 helburu ezartzen ditu** eta SUM Bilbao 19-ko enpresa babesleak zein erakunde antolatzaile eta laguntzaileak sinatu zuten.

Bilboko Adierazpena ordezkari publiko zein hiri-mugikortasun jasangarriarantz bideratutako eraldaketa bilatzen duten enpresen goi-karguek sinatu zuten. Modu honetan, Biltzarraren amaierako entzuleen aurrean, erakunde sustatzaileek sinaduraren ekitaldia burutu zuten, entitate laguntzaileen ordezkariarekin batera. Aurretik, Biltzarraren enpresa babesleak jada gehitu ziren Bilboko Adierazpenera.



JUAN MARI ABURTO
Bilboko alkatea

“Adierazpena sinatzen du hiri jasangarri, inklusibo eta aberatsak elkarriketarekin eta inplikaturako sektore guztien arteko lankidetzarekin bakarrik lor daitekeela uste duelako”.



IMANOL LANDA
Euskadiko Udalen Elkarteko (EUEL) presidentea eta Getxoko alkatea

“Adierazpena sinatzen du jasangarritasuna euskal udalerrien identitate- eta kalitate-zigilua delako, hiri-mugikortasuneko politikak barne hartzen dituen”.



ROLAND RIES
Estrasburgoko alkatea

“Adierazpena sinatzen du ziur dagoelako lurraldeko entitateen elkarte eta ardura-hartze handiago baten bidez gerta daitezkeela benetan eraldaketa globalak”.



ALFONSO GIL
Espainiako Probintzien eta Udalerrien Federazioa (FEMP) ordezkatzuz, Bilboko alkateorde eta Mugikortasun eta Jasangarritasun saileko zinegotzia

“Adierazpena sinatzen du tokiko mugikortasun-politikak puntu gakoa direlako hiriek dituzten erronka askori aurre egiteko, hala nola bizi-kalitatea, inklusio soziala, genero berdintasuna eta garapen sozioekonomikoa”.



EMILIANO LÓPEZ

Presidente exekutiboa, Petronor

"Adierazpena sinatzen du energia-hornitzaileak mugikortasun-eredu berriein konprometitzen direlako, gobernuek ezarritako ziurtasun-esparruek faboratzen dituztenak; hortaz, irtenbidearen parte da".



EMILIO TITOS

Zuzendari nagusia, Espainiako Mercedes-Benz-eko fabrika Vitoria-Gasteizen

"Adierazpena sinatzen du automobilgintzaren industria, orokorrean, eta haien enpresa, bereziki, duela denbora egin zutelako apustu hiri-mugikortasun jasangarriaren alde, eta horrela egiten jarraituko dute".



VICTOR LOPEZ MENENDEZ

Garraio zuzendaria, ALSA

"Ingurumenarekin arduratsua den operadore gisa, ALSA-k konpromisoak partekatzen ditu eta Bilboko Adierazpenera gehitzen da hiri-mugikortasun jasangarriago baten alde".



JUAN MARIN

Kapsch-eko Espainiako eta Portugaleko Hirien zuzendaria

"Kapsch-ek Adierazpen hau sinatzen du hirietan mugikortasuna kudeatzeko teknologia berritzailea erabiltzearen sustatzaile gisa, seguruagoa, eraginkorragoa eta jasangarriagoa izatea bilatzen duelarik".



NORA SARASOLA IRIZAR

BBK-ko Gizarte Ekintzako zuzendaria

"Adierazpena sinatzen du hiri-mugikortasun jasangarria babestea bizkaitarren ongizatearekin duen konpromisoari lotutako erantzukizuna delako".



AITOR ARZUAGA

Zuzendari nagusia, IBIL

"Adierazpena sinatzen du enpresak eta gobernuek eskutik joan behar direlako mugikortasunaren erronkei modu eraginkorrean aurre egiteko".



HECTOR OLABEGOGEOASKOETXEA

Zuzendari nagusia, Irizar emobility

"Adierazpena sinatzen du mugikortasun elektrikoa etorkizunaren mugikortasunaren paradigma izango delako, baina bakarrik guztiak esparru berean mugitzen baldin bagara".



ELADIO ORIVE

Bizkaia M.A. Ordezkaritzaren zuzendaria Ingurumen Saila, FCC

"FCC-k Adierazpena sinatzen du ingurumenaren erronkak ebazteko premiazko ekintzak eta erabakiak gauzatu behar direlako".



DANIEL NAVALON GARCIA

Espainiako Ipar zonako arduraduna, Sacyr Infraestructuras

“Adierazpena sinatzen du etorkizuneko azpiegiturak gaur egunetik eraikitzen hasten garen mugikortasun jasangarriko pentsatuak egon beharko direlako.”



ANDER MUÑOZ

Proiektu kudeatzailea, Beaz Bizkaia

“Adierazpena sinatzen du lurraldeko garapena eta enpresen lehiakortasuna balio-kate jasangarrietan integraztearen arabera izango direlako.”



IÑIGO ANSOLA

Zuzendari nagusia, Energiaren Euskal Erakunde (EVE)

“EVE-ak Adierazpen hau sinatzen du karbonorik gabeko hiri-mugikortasun jasangarria Euskadiko trantsizio energetikoaren euskarrietako bat delako.”



ANTONIO GONZALEZ URQUIJO

Espainiako Sare Elektroaren ipar eskualdeko ordezkaria

“Adierazpena sinatzen du, Sistema Elektroaren Operadore gisa, zeinaren misioa erabiltzaile guztiei hornikuntza elektrikoa bermatzea den, uste duelako hiri-mugikortasun jasangarriko ereduak ez direla bideragarriak izango haren diseinuan sartuta dauden eragile guztiek parte hartzea lortzen ez bada, sektore energetikoa barne.”



PEDRO MIER

Presidentea, AMETIC

“Adierazpena sinatzen du XXI. mendeko mugikortasun-erronkei aurre egiten dieten irtenbideen eraikuntzarekin eta hauek komunean jartzeko ideiarekin konprometitua dagoelako.”

“Hiri-mugikortasun jasangarriagorantz”

Bilboko adierazpena zenbait tokiko gobernuak, nazioarteko erakundeak, hainbat sektoreetako enpresa pribatuak (automobilgintza, garraioa, energia, teknologia, start-up-ak) eta ezagutza eta ikasketa zentruak partekatzen dituzten konpromisoak batzen dituen nazioarteko agiria da. Konpromiso horiek hartzearen helburua gure hirietan hiri-mugikortasun jasangarriko ereduak ezartzea da.

HELBURUAK:

Bilboko Adierazpen honek duen helburu nagusia hau da: hiri-mugikortasun jasangarria

gorako ereduak sortzearen alde eragin- eta eraldaketa-ahalmena duten hainbat eragilek partekatzen dituzten konpromisoak batzea. Horrela, garapen global jasangarria sustatzeko nazioarteko esparruan egindako esfortzuekin bat egingo du, **Hiri Agenda Berriarekin, Garapen Jasangarriaren Helburuekin (GJH)** eta 2030 Agendarekin **lerrokatuz**.

KONPROMISOAK:

Bilboko Adierazpen hau sinatzen dugun erakunde publiko eta pribatuok ekintza hauek burutzeko konpromisoa hartzen dugu:

1 Tokiko eta lurraldeko gobernuek hiritarren elkarrizketarako eta parte hartzerako guneak sortzeko konpromisoa hartzen dute, hiri-mugikortasunari dagozkion erabakiak hartzea bultzatzeko xedearekin. Sektore pribatuak eta akademikoak eta gizarte zibileko erakundeek gobernantza sistema honetan parte hartzeko konpromisoa hartzen dute.

2 Gobernu-organoek mugikortasun eredu berrien garapena ahalbidetu eta ingurumen-jasangarritasuna eta gizarte ongizatea bermatuko duten arau esparruak sustatzeko eta mugikortasun jasangarrian oinarritutako garapen sozioekonomikoa bultzatzeko konpromisoa hartzen dute. Enpresaren sektoreak esparru horiek betetzeko eta mugikortasun jasangarriaren inguruko negozio berriak garatzeko konpromisoa hartzen du.

3 Tokiko gobernuek hiri-planifikazioa mugikortasun jasangarriaren eskura jartzeko eta eraginkorrak, jasangarriak eta inklusiboak diren garraio publikoko sistemen funtzionamendua bermatzeko konpromisoa hartzen dute.

4 Garraioaren, automobilgintzaren eta energia-ren sektoreko enpresek haien diseinu eta ekoi-zen prozesuen ikuspegia pixkanaka aldatzeko konpromisoa hartzen dute. Izan ere, helburua horiek ingurumenean gutxieneko eragina duten garraiobide jasangarrietara, segurueta eta eraginkorretara zuzentzea da; bai ordezkotzaren ikuspuntutik eta bai bere floten berrikuntzaren ikuspuntutik ere, isurpen gutxiago sortuz eta hirietan aire-kalitate hobea bermatuz.

5 Enpresek eta gobernu-organoek energiaren trantsizioa bultzatuko duen ibilbide-orri bat ezartzeko konpromisoa hartzen dute, ingurumenaren arazoak eta errealitate sozioekonomikoa kontutan hartuz. Ildo beretik, mugikortasun elektrikoan jarduten duten eragileek hirietan mugikortasun elektrikoa ezartzeko plan komuna sortzeko konpromisoa hartzen dute. Horretarako karga-azpiegituren eraikuntza erraztuko dute.

6 Garraioaren, automobilgintzaren eta teknologia-ren arloetako enpresek haien I+G+b prozesuak eta teknologia berriak hiri-mugikortasun jasangarriaren zerbitzura jartzeko konpromisoa hartzen dute. Hiritarren datu pertsonalekin edo bereziki babestuta dauden datuekin lan egiten dutenek hiritarren pribatutasuna babesteko konpromisoa hartzen dute. Agintari publikoek, bestalde, konpromiso hori bete dadin jardungo dute; eta, aldi berean, aurrerapen horiek haien Smart City programetan barneratzeko konpromisoa hartzen dute, mugikortasun adimentsua indartuz.

7 Garraioaren planifikaziorako eta hirien mugikortasunerako politika publikoek genero berdintasuna eta genero-ikuspegia inplementatuko dute. Horretarako, emakumeen parte hartzea sustatuko da garraio seguruagoak eta irisgarriagoak diseinatzeko erabakiak hartzeko prozesuetan.


8 Hiri-mugikortasun jasangarriaren inguruan lan egiten duten eragileek gizarteratzearen alde lan egingo dute, ahulagoak diren gizarte-taldeen eskaeretan arreta jarritz. Enpresa pribatuek ekintza inklusibo hauen formulazioan eta inplementazioan parte hartuko dute.

9 Tokiko gobernuek taldeko garraioaren erabile-ra sustatzeko konpromisoa hartzen dute; eta, horretarako, arrazoizko prezioak eta ordutegi eta lurralde estaldura egokia bermatuko dute. Hiriek eta gizarteak orokorrean formularik eraginkorrena eta merkeena topatu beharko dute.

10 Tokiko gobernuek hiri-mugikortasunaren esparruan airearen kutsadura eta hots-kutsadura murrizteko xedea duten ekintzak abiarazteko konpromisoa hartzen dute; eta enpresa pribatuek, bestalde, helburu hauekin bat datozen alternatibak bilatzeko konpromisoa hartzen dute.

Aipatutakoez gain, Bilboko Adierazpen hau sinatzen duten erakunde eta entitateek konpromiso hauek hartzen dituzte: konpromisoak aldiro berrikustekoa eta Sustainable Urban Mobility Congress-eko hurrengo edizioetan beren ekintzen bidez lortutako aurrerapenen berri ematekoa.

4.5 NETWORKING ZONE





Speakers' Corner

Speakers' Corner SUM Bilbao 19-n jorratutako gaiei buruzko eztabaidekin jarraitzeko gunea izan zen, baina giro lasaiago eta bareagoan. Networking Zone-aren gunea pribilegiatuan kokatua egon zen eta SUM biltzarrera hurbildu zirenek ekimen interesgarriak ezagutzeko aukera izan zuten programaren atsedenaldietan. Guztira zazpi hitzaldi egon ziren, hiru momentutan banatuta.

LUNCH BREAK – 1. EGUNA

JESÚS DE LA QUINTANA-K

EIP-SCC-ren action cluster Sustainable Urban Mobility-ren New Mobility Services (NMS) ekimenaren koordinatzaileak, ekimen horren helburuak azaldu zituen, honetan datzana: NMS-ak hiri-testuinguruan hedatzea hiriak osasungarriagoak, bizigarriagoak, irisgarriagoak eta aberatsagoak izateko.

XAVIER SANYER-EK

Bartzelonako Metropoli-Garraio Agintaritzaren Mugikortasun-zerbitzuko buruak, Bartzelonako eskualdeko 2020 – 2025 Mugikortasun plan zuzendariaren (pdM) beritasunak jakinarazi zituen, 300 udalerri eta ia 6 milioi biztanle hartzen dituen barne.

BENJA BALLESTEROS-EK

Mugikortasun Jasangarriaren Sustapenerako Fundazio Teknologikoko (MUISU) presidentea, pertsonen paper protagonista aldarrikatu zuen mugikortasunaren esparruan, bai eta mugikortasun aktiborako guneen berreskurapena ere.

COFFEE BREAK – 1. EGUNA

EUSEBIO PUEBLA-K

Intelligent Parking-en CEO-ak, eta Bartolomé Navarro-k, Bike-In faktoriaren zuzendari teknikoak, Autonomous Hub for cyclists gunea aurkeztu zuten, hau da, funtzio anitz dituen bizikletentzako parking segurua (kargatzea, aplikazioaren bidezko kudeaketa, etab.).

DANI RUIZ-EK

TXITA-ren bazkide sortzailea eta CEO-ak, haren ziklo-logistikaren proposamena aurkeztu zuen merkantzien hiri-banaketarako (DUM) irtenbide jasangarri eta atsegina bezala, bai eta produktu honen potentzialtasun guztiak ere.



COFFEE BREAK – 2. EGUNA

JUAN SACRI

La Pinada auzoko Mugikortasun eta Energia sailaren arduraduna-k, hiri jasangarriko eta auzokoen arteko sorkuntza-proiektu hau azaldu zuen, non mugikortasuna energia garbiez hornitzea bilatzen den.

ISIDRO ARRIETA-K


Elektronika-ingeniarria eta Ingartek-eko bazkide sortzaileak, datu masiboen iturriek mugikortasunaren plangintzarako dakartzaten aukera eta mugak aztertu zituen.



Exhibition Hall

Exhibition Hall-a hiri-mugikortasun jasangarri-rako irtenbideak partekatzeko gunea bihurtu zen. Bertan, Biltzarraren enpresa babesleetako batzuk egon ziren: IRIZAR, ALSA, FCC, IBIL, SACYR eta BEAZ.

Halaber, SUM Bilbao 19-k hiri-mugikortasun jasangarriaren esparruan garatzen ari diren startup-ei haien produktuak etorkizuneko mugikortasunerako irtenbide berritzaile gisa aurkezteko aukera eman zien.



BATURA

APPetan oinarritutako mugikorren soluzioak garatzen dituen enpresa da Batura, eta bere helburua sektore anitzetako prozesuen eraldaketa digitala da. Enpresak esparru hauetan jarduten du, batez ere: Industria 4.0, SmartCities, Nekazaritza, Osasuna eta Marketing Mugikorra. Baturak egoitza Bilbon dauka eta 2006tik hainbat teknologia mugikorretan lanean dihardu, betiere helburu berarekin: zenbait erakunde eta entitate motari irtenbide digitalak ematea, hauen lan-prozesuak hobetzeko edota haien merkatu-helburuak betetzeko.



TRANSPORTER

Transporter elkarlaneko ekonomia logistikaren eta salgaien garraioaren sektorean barneratu nahi duen enpresa da. Enpresa hau paketeriaren eta merkataritza elektronikoaren sektoreari zuzenduta dago eta egiten duena zera da: egunero, ibilgailuetan toki librea duelarik, bidaiatzen duten pertsonak paketeren bat bidali behar duten enpresekin edo pertsonekin harremanetan jartzea. Bestela esanda, eremu logistikoen eta salgaien garraioaren AIRBNB edo UBER da.

DRONAK

Dronak sektore aeronautikoaren enpresa bat da eta urrunetik gidatutako gailuen robotikaren teknologietan espezializatuta dago. Gailu hauek "dron" izenarekin ezagunak dira. Bere jardura hiru eremutan garatzen da: 1. Pilotu eta ingeniariak aurrera eramaten dituzten zerbitzu espezializatuaren eremu operatzailea; 2. Industriarako irtenbideak eskaintzen dituen I+G+b eremua, helburu zehatzetarako garatutako eta espezializatutako dronak erabiltzen dituen. 3. Dronak Academy, profesionalei prestakuntza eskaintzen dien prestakuntza eremua.



INNOVATIVE SYSTEMS

D&A makina edo prozesu bakoitzak duen azterna digital bakarra identifikatzean oinarritzen diren zerbitzu eta irtenbideak eskaintzen ditu. Horien bidez, fabrikatzaileak edo erabiltzaileak sistema kontrola dezake eta, gaizki erabiliz/funtzionatuz gero edo arazoren bat gertatuz gero, jakinarazpen bat jasoko du. Bere zerbitzuetako bat Clospark da, Parkingaren Kudeaketa Integrala, aparkaleku publikoko, pribatuko eta komunitateetako lekuak kudeatu, alokatu eta erreserbatzeko aukera ematen duena era azkarragoan eta eraginkorragoan, eskaintzarekin eta eskariarekin bat eginez.

ASIMOB

ASIMOB (Advanced Services in Mobility S.L.) 2016an sortu zen start-up bilbotarra da eta ibilgailuetako IoT-aren garapenean oinarritutako zerbitzuak eskaintzea du helburu. ASIMOBek eskaintzen dituen zerbitzuek aukera ematen dute, normalean, bideetatik ibiltzen diren ibilgailuetatik eskuratutako datuetan oinarritutako garraio azpiegiturak monitorizatzeko. Sistema hauen garapenari esker, enpresa europar erreferente bihurtu da eremu honetan.

**OX RIDERS**

Motor klasikoak gidatzearen esperientzia puntako teknologiarekin elkartuz sortu zen OX Riders. Ø1 guztiz elektrikoa den bere lehenengo modeloa da. Modularra da eta azken erabiltzaileak kustomiza dezake. Gehienez, 120 km/h-ko abiadura har dezake, sarera konekta daiteke eta vintage, sport eta futurista modeloak egongo dira eskuragarri.

**VOSTOK ELECTRIC**

Vostok Electric hirietako mugikortasun elektrikoa sustatzeko helburua duen start-up-a da. Horretarako, bezeroei ohiko aukerekiko ordezkotako bide errealek eskainiko dizkieten soluzioak diseinatzeko ditu; hau da, muga berriak sortuko ez dituzten soluzioak. Helburua zera da: mugikortasun elektrikoaren abantailak gozatu ahal izatea ezer uko egin gabe. Vostok-en lehenengo produktua ziklomotor elektriko bat da, atera daitezkeen eta etxeko edozein entxufean karga daitezkeen bateriak dituenak.

**EVOLO**

EVOLOn laguntza elektrikoa duten trizikloen diseinuan, garapenean, ekoizpenean eta merkaturatzean lan egiten dute; ekoizpena gehienezko kalitatean eta sendotasunean oinarrituz. Izan ere, erabilera industrialerako zein profesionalerako ibilgailuak dira. Ibilgailu hauek, motordun ibilgailuekin alderatuta, dituzten abantailak hauek dira: orduetegi mugarik, isunik edo erregai gasturik ez daukate; ez dute lizentzia edo asegururik behar; eta bizikletek erabiltzen dituzten toki berberetatik ibiltzeko aukera legala daukate.

WIBLE

WIBLE Kiaren eta Repsolen esku hartzearekin jarduten duen carsharing konpainia da eta Madrilan jarduten du hiri horretako mugikortasuna berriro asmatzeko helburuarekin. Zerbitzua erabili ahal izateko, APPa jaitsi eta doan eman beharko duzu izena. Hau egin eta gero, erabiltzaileak Kia Niro hibrido entxufagarriaren 500 ibilgailuko flota izango du eskura. Kotxe hauek 58 km-ko elektrizitate-elikadura eta 600 km-ko autonomia daukate, haien teknologia hibridoari esker. Era berean, erabiltzaileek Madrileko 9 parking eta hiriarteko 3 base erabili ahalko dituzte.

**BEGASMOTOR**

BEGASMOTOR automobilgintzaren munduan jarduten duen enpresa da eta bere espezializazioak hauek dira: motor ekologikoak eta gas-energia alternatiboen merkaturako motor hauen elektronikaren kontrola. AICn, Bizkaian, kokatuta dago eta errepidean errendimendu ertaineko eta handiko PGL ibilgailuen aplikazioetan eragile nagusietako bat izateagatik onespina lortu du, bai nazio mailan zein nazioartean. Duela bi urte, BEGASMOTOREk frogatu zuen PGL AUTOGASA garraio ertainerako eta pisutsurako erabili daitekeela.

**NEXT BIKE**


Europako merkatuaren lider eta bizikleta publikoko sistemen aitzindari gisa, NextBike txirrindularitza hiri-mugikortasunaren zati integrala bihurtzen ari du. Duela 14 urte baino gehiago hasi ziren iraupen luzeko bizikleta publikoko sistemak garatzen; bizikletak tokiko garraiobide publiko bihurtuz, autobusen eta trenen baldintza berberetan. Haien negozio eredua jasangarria da merkatuaren ikuspuntutik eta hirien, garraio-enpresen, unibertsitateen eta bazkide laguntzaileen arteko kooperazioan oinarritzen da.

**SMART TRACK**

Smart Track Solutions-ek mugikortasun soluzioak eskaintzen dizkie pertsona edo ibilgailuei, bai gune irekietan zein barrualdean. Horren helburua mugimendu edo ibilbide ohikoenei buruzko informazioa lortzea da. Gailu mugikorren WIFI eta Bluetooth seinaleen detekzioan oinarritzen da (beti era anonimoan). Informazio hori urrutiko zerbitzari batera bidaltzen dioten hargailuak erabiltzen dituzte eta informazioa denbora errealean monitorizatzen da, estatistika datuak eta bero-mapak egiteko.

FORMULA STUDENT VITORIA

FSVitoria Gasteizko ingeniarietza fakultateko formula student taldea da, UPV/EHUko Arabako kanpusekoa. Taldea automobilgintza ingeniarietza gradu berriko zenbait ikaslek osatzen dute. Haien helburua lehiaketarako plaza bakarreko ibilgailu elektrikoa diseinatzea, simulatzea, eraikitzea eta optimizatzea da; eta, horretarako, hainbat enpresa eta erakunderekin lan egingo dute.



MUGIKORTASUN ARDURATSU ETA BEGIRUNEZKOAREN ALDE



bbk 
5 urtez fundazio.
100 urte luzez
laguntzaile.



Side Events

Paraleloki, SUM Bilbao 19-ren saio tematikoak gauzatzen ziren aldi berean, beste jarduera edo *side event*-ak burutu ziren.

__Otsailak 20

REE eta FEMP hitzarmenaren sinadura

Biltzarrean zehar, Espainiako Sare Elektrikoa (REE) eta FEMP-a mugikortasun jasangarriko konpromisoa hartu zuten ere, udaletxei laguntza teknikoa emateko, ibilgailu elektrikoaren erabilera Espainiako lurralde osora bultzatzeko eta hirietan eta udalerrietan kargatze-puntu publikoen instalazioa errazteko lankidetzak akordio baten sinaduraren bitartez. Hitzarmen horrek lau jarduketarako datuak ditu: esperientziak partekatzea mugikortasun elektrikoaren arloan; eremu horren laguntza teknikoa; mugikortasuna, energia-eraginkortasuna eta energia berriarekin

rrien garapenean datzan langileen prestakuntzarako laguntza eta, azkenik, lankidetzak udalerrien kargatze-puntuen kudeaketa adimentsuan Ibilgailu Elektrikoko Kontrol-Zentroaren bidez (CECOVEL).

FEMP – Mugikortasuna eta irisgarritasuna lan batzordea

Espainiako Probintzien eta Udalerrien Federazioaren barneko bilera honetan hiriko gune publikoei buruz eta hiriaren lekualdatze-moduei buruz hausnartu zen. Bizikletaren Estatu-mailako Plan



Estrategikoaren prestakuntzari ere ekin zitzaion, bai eta FEMP-ren tokiko entitateen jardunbide egokiei buruzko dokumentuaren edizioari ere; honek garraio eta mugikortasunari aplikatutako irisgarritasun kognitibo, hizkuntza argi eta irakurmen errazaren inguruan dihardu.

Think Tank #Vehicles7YFN, final report 2018

SUMBilbao19 Hiri-Mugikortasun Jasangarriaren Biltzarrean esparruan, AMETIC-ek, Espainiako industria digitalaren patronalak, 2025erako Europako mugikortasun-gakoak aurkeztu zituen, #VEHICLES7YFN Think Tank-ak igorritako lehen dokumentuan adierazitakoak.

Erakundeak, nazioarteko 60 adituekin batera, mugikortasunaren etorkizuneko hiru agertoki posible definitu dituzte, bai eta hurrengo urteetan aurre egin beharreko erronkak ere, ondorioen dokumentu batean zehazten direnak.

Ekimen honek ingurumen, jasangarritasun eta eraldaketa digitalari buruzko pentsaera disruptiboa bultzatzen du, hiri eta lurraldeen mugikortasunaren etorkizunari buruzko hausnarketan eta proposamenetan laguntzeko helburuarekin.

Gainera, AMETIC-ek Bilboko Adierazpena sinatu zuen topaketan zehar. Dokumentu honek hiri-higikortasun iraunkorreko nazioarteko inplementazio ereduak zehazten ditu.



__Otsailak 21

FEMP – Garraioa eta azpiegitura lan batzordea

Espainiako Probintzien eta Udalerrien Federazioaren barneko bilera honetan Bizikletaren Estatu-mailako Plan Estrategikoaren prestakuntzari eta Zirkulazioko Erregelamendu Orokorren 50. artikulua aldatzen duen Dekretu Errealaren Proiektuaren analisiari ekin zitzaion. Halaber, mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen (VMP) inguruko Ibilgailuen Erregelamendu Orokorreko hainbat artikulua eta hiri-mugikortasun kolektiboko arloko 2019. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren zuzenketa landu zen.

15.

BABESLEAK



20-21
**SUSTAINABLE
URBAN MOBILITY**
"XXI. Mendeko hiriak mugitzen"
"Moviendo las ciudades del siglo XXI"
"Moving the cities of the XXI century"


BBK

Gizarte modernoek eta aurreratuek mugikortasuneko modu berriak behar dituzte. Orain arte ezagutzen genuen eredua, ibilgailu pribatuaren erabilera indiskriminatuan oinarritutakoa, bere amaierara heltzen ari da. Hori da BBK-n gaur egun presente dagoen errealitatea eta, nolabait, erakundean eta ingurumenaren zaintzarekin laguntzeko bere ideietan sakon sartu da.

Zentzu horretan, BBK-k erabaki du gizarte-kontzientziazioan arreta jartzea. Jasangarritasunaren borroka prebentzio-prestakuntzatik libratu nahi du eta bereziki belaunaldi berriak prestatuz. Berotze globalaren ondorioetatik ateratzeko neurri zorrotzak aplikatu behar ditugu, energia-kontsumo optimoko ereduak sortzeko energia berriztagarrien bidez. Baina beharrezkoa da ere gazteak prestatzea, laster ingurunearen gaitzaren aurkako borroka gidatuko baitute.

Bizkaiko garapen ekonomiko eta soziala bilatzen duen eragile gisa, BBK-k bere ikuspuntu berdeena lurraldeko umeengan bideratu du. Kolektibo horrentzat, BBK-k abian jarri ditu ingurumenaren errespetuan eta zaintzan oinarritutako zenbait proiektu eta ekintza, Bizkaia handitzeko helburua dutenak.

BBK-k diseinatzeko dituen ekintza askotan arreta jartzen da mugikortasun jasangarrian, baina herritarrek kontzientziaziaz gain, BBK-ko Gizarte Ekintzak proiektuak bultzatzen ditu gero eta garraio ekologikoagoa lortzeko asmoarekin. Orain direla urte batzuk, adibidez, Kutxabank-eko % 57aren jabe den entitateak parte hartu zuen Aparka proiektua abiarazten. Proiektu horrek, Europar Aitzindari izan zen gizarte-berrikuntzako ekimenak, bizikletentzako aparkaleku babestuak sortzeko eta gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonak enplegatzeko asmoa zuen, mugikortasun jasangarria faboratzen zuen bitartean.

Garraio jasangarriaren erronkek mugak gainditzen dituzte. Sektorea eraldaketa eta aldaketa prozesuan dago eta gero eta ekimen gehiago agertzen dira garraio % 100 jasangarria lortzeko aukera gisa. Zentzu horretan, BBK-ren asmoa da pausoak ematea errealitatera moldatuz, garapen teknologikoarekin eta ekoizpen-sisteman garapenak ezartzeko moduarekin kontsekuenteak izanda. Ezinbestekoa da pentsamolde zaharrak aldatzea eta etengabe aurrera joatea presatu gabe. Ingurumen-hezkuntzaren bidez, adimen berriek argi izaten dute gizartearen erronka handietako bat planetan arrastorik utzi gabe bidaiatzea dela.

Bizkaiko hiriburuan ospatu zen mugikortasun jasangarriari buruzko SUM Bilbao 19 Biltzarraren amaiera gisa, zeinean BBK-k parte hartu zuen, Bilboko Adierazpena sinatu zen. Dokumentu horretan, lehen aldiz, eragile publikoek zein pribatuek hiri-mugikortasun jasangarria faboratzera zuzendutako ekintzak euren gain hartuko zituztela hitzeman zuten.

Foru garrantzitsu honetan, BBK-k argi utzi zuen garapen jasangarriko heziketak beharrezko ahalmena duela zubi sendoagoak eraikitzeko gaur egun ezagutzen dugun mugikortasunaren eta etorkizunerako nahi dugun mugikortasunaren artean. Horregatik, BBK-rentzat funtsezkoa da herritar sentsibilizatuak, erantzunkideak eta parte-hartzaileak sortzea, herri zein hiri hezitzailetan bizi direnak eta inguru berdeaz, sozialki arduratsuaz eta kulturalki aktiboaz eta osasuntsuaz gozatzen dutenak.

<https://portal.kutxabank.es>





REPSOL

Repsol, mugikortasunaren gaur egungo eta etorkizuneko erronkez arduratua.

Energiaren sektoreak, gure gizarterako funtsezkoa dena, trantsizio energetiko berriari aurre egiteko erronka du, handituz doan energiaren eskaera modu jasangarrian eta lehiakorrean, eta horniketaren segurtasuna bermatuz asetzeari ahalbidetzen duena. Gizarte gisa anbizio handiko erronka dugu: eredu energetiko jasangarriagora aldatzea.

Repsol multienergia konpainia da, trantsizio energetikoan parte hartu nahi duena eta gizarteari energia segurua, arrazoizkoa eta jasangarria eskaintzen diona. Europako fintze-sistema eraginkorrenetako bat edukitzeaz gain, Repsol enpresa liderra da mugikortasunean, aitzindaria berrikuntzan eta ekimenen garapenean, garraiorako konponbide eta energia berriak bilatzen laguntzen dutenak.

Konpainiatik zenbait ekimen burutzen dira mugikortasuneko modu berriak laguntzera zuzenduak. Horretarako, gidariei aukera gehiago eskaintzen dizkieten eta baliabideen erabilera partekatua, car sharing-a adibidez, sustatzen duten zerbitzuak eta aplikazioak garatzen ditu. Espainiako ibilgailu elektrikoak kargatzeko sare publiko handienera hartzen du parte, IBIL-en bidez, Repsol-en % 50eko partaidetza duen enpresa Energiaren Euskal Erakundearekin (EEE) batera.


Konpainiak urteak daramatza bere erregaien eraginkortasuna hobetzen Repsol Technology Lab ikerketa-zentroan eta AutoGaseko merkaturatze-liderra da Espainian, munduko erregai alternatibo erabilienera. Teknologia eta digitalizazioa bestelako gai gakoak dira Repsolen. Izan ere, berrikuntzan, jasangarritasunean eta eraginkortasunean energia sektoreko erreferente bihurtu da konpainia, hainbat diziplinatan garatutako proiektu aitzindariak esker.

SUM Bilbao 19 biltzarrean, non gaur egungo zein etorkizuneko hirien erronkei buruz eztabaidatu den, Repsol-ek hainbat ekimenekin hartu du parte. Biltzarrean zehar Repsol-eko presidenteak, Antonio Brufau-k, neutraltasun teknologikoa defendatu zuen mugikortasun jasangarria lortzeko bidean. Epe laburrerako neurri gisa automobil-parkea berritzeko programaren beharra emisioak murrizteko modu eraginkorrena bezala aurkeztu zuen, hirien airearen kalitatean eragin gehien duen faktoreetako bat baita automobil-parkearen zahartzea: Espainiako autoen % 60k hamar urte baino gehiago ditu. Gauzak ondo egiteko ereduak da, gehitu zuen, Eusko Jaurlaritzak sustatutako Renove Plana, automobil-parkearen berrikuntza bultzatzeko. Brufau-k nabarmendu zuen teknologia berriei esker murriztu direla ia % 90ean erredukuntzako motorren NOx eta partikulen emisioak orain dela 10 urterekin alderatuta eta oraindik eraginkortasuna hobetu eta emisioak % 30ean murriztu daitezkeela 2030erako.

Erakundeek eta enpresek batera jardun behar dute ikuspegi teknologiko eta industrialarekin, bizitzen gauden trantsizio energetikoaren eraginaren ikuspuntu errealekin eta hiri-espazio jasangarrietarako garapen pragmatikoarekin, adierazi zuen Repsol-eko presidenteak SUM Bilbao 19 biltzarren bukaeran.

Repsol-en ikuspuntua helburu baten bila: energia eskuragarria, eraginkorra eta segurua eskaintzea, zeinarekin gero eta handiagoa den eskaera energetikoari erantzutea ondorengo belaunaldiak arriskuan jarri gabe. Jasangarritasunaren aldeko apustua pieza gakoa da Repsol-en etorkizunerako ikuspuntuan energia-konpainia global gisa.

<https://www.repsol.es/es/index.cshtml>





IRIZAR E-MOBILITY

Irizar e-mobility-k parte hartu du Sustainable Urban Mobility Congress SUM Bilbao 19-ren lehenengo edizioan, otsailaren 20an eta 21ean ospatu zena Bilboko Euskalduna Jauregian. Ekitaldi honetan bere gaitasun teknologia erakutsi zuen zenbait sektoretan: elektromugikortasunean, motore elektrikoetan, baterietan, energian, elektronikan, adimen artifizialean eta konektibitatean.

Ekitaldi hau dela eta, otsailaren 21ean, 22an eta 23an, Bilboko Itsas Museoa "Irizar ie truck" erakutsi zen, Irizar taldearen kamioi elektriko eta berritzaile berria, merkatuaren hainbat beharrei erantzuten diena eta zeinari esker hirietan eta hiri-inguruetan kutsadura atmosferikoa eta akustikoa sortu gabe garraiatu daitekeen.

Irizar e-mobility hirientzako elektromugikortasuneko konponbide integralak eta pertsonalizatuak eskaintzeko helburuarekin jaio zen, bai zero emisioko % 100 elektrikoak diren ibilgailuak fabrikatzeari dagokionez bai energia-kargatze, -trakzio eta -biltegiatzerako beharrezkoak diren azpiegitura-sistema nagusiak fabrikatzeari zein instalatzeari dagokienez. Horiek guztiak Taldearen % 100 teknologiarekin diseinatuta eta fabrikatuta daude, Irizar zerbitzuaren berme eta kalitate osoarekin.

Biltzar honetan Irizar e-mobility-k Bilboko Adierazpena sinatu zuen. Dokumentu horrek Biltzarraren helburuak biltzen ditu hiri-mugikortasun jasangarriaren alde egiteko. Irizar e-mobility-k erabaki du garraio eraginkorrak, garbiak eta eskuragarriak sustatu behar dituela, betiere ingurumenaren, ongizatearen eta osasunaren alde egiten badute eta hiri-ingurune hobeak sortzeko balio badute.

<https://www.irizar.com/>



IBIL

SUM Bilbao 2019-an, IBIL-ek, enpresa aitzindari eta erreferentea ibilgailu elektrikoak kargatzeko zerbitzuetan eta teknologietan, biltzarraren bisitari bere standean erakutsi zien hiri-inguruetan eta hirien arteko inguruetan inplementatutako kargatze-teknologia eta izandako esperientzia, Bilboko, Lanzarote edo Madrilgo kasu arrakastatsuekin. Gaur egun, IBIL-ek badauzka 200 karga-puntu publiko baino gehiago, horietako 50 karga bizkorrekoak izanda.

Konpainiak SUM-en azaldu zuen nola garraioaren elektrifikazioak lagunduko duen karbonizazioa murrizteko helburuak betetzen. Aitor Arzuaga-k, IBIL-en zuzendari nagusiak, emandako hitzaldian izan zen hori. Bertan, azpimarratu zuen **mugikortasunak hirien arloan hainbat forma izango dituela, baina elektrizitatea beharko dutela**; hortaz, azpiegiturak eta karga-zerbitzuak beharko dituztela. Horretarako guztirako, **hiriko azpiegitura publikoa** beharrezkoa da mugikortasun modu berriak herritar guztientzat eskuragarriak izan daitezen. Era berean, adierazi zuen **erakunde publikoak** funtsezko elementua direla hedapenak errazteko eta kargatzeko azpiegitura energetikoa hiri-ingurunean **epe luzera** antolatu behar dela.

Biltzarrean, IBIL-ek erakutsi zuen ere zeintzuk diren bere karga-irtenbideak, merkatuan dauden konektore motak eta bere app berritzailea, zeinaren bidez erabiltzaileak bere auto elektrikoa klik bakarrarekin kargatu ahal duen.

<https://www.ibil.es/index.php/eu/>



ALSA

ALSA

ALSA **bidaiarien garraiorako operatzaile liderra da Espainian**, non Distantzia Luzeko, Eskualdeko, Hiriko eta Metropoliko zerbitzu-sare zabala duen. 100 urte baino gehiagoko eskarmentua duen enpresa hau National Express taldean dago gaur egun. ALSA-k 2010tik Bilboko hiri-garraioa kudeatzen du, **Bilbobus**, 145 autobuseko flotaz baliatuta. Aldi berean, **Bizkaibusen** barneratuta dauden Bilboko metropoliko zenbait zerbitzuren arduraduna da ere bai, horretarako 140 ibilgailu duen.

Mugikortasunarekin lotutako arazoak gero eta larriagoak direnaren jakitun da ALSA. Izan ere, milioika pertsonen bizi-kalitatean eragina dute eta gero eta lehentasun gehiago dute agenda publikoan.

Horretarako, ingurumenarekin arduratsua den operadore gisa, ALSA **Bilboko Adierazpena** gehitu da, eta mugikortasun jasangarriko eredu berriak ezartzearen aldeko apustua egiten du. Modu horretan, **teknologia garbiak erabiltzen dituzten flotak sartzen** ditu eta **produktu intermodal berriak eta azken miliako produktuak garatzen** ditu. Halaber, **garraio-sistemen finantzazio egoki** baten aldeko apustua egiten du, operatzaileek kalitatezko zerbitzu berritzaileak eskaintzen jarraitu ahal izateko.

Ildo horretan jardun da **Miguel Ángel Alonso**, ALSAko Mantentze eta Ingeniaritza saileko zuzendari nagusia, **SUM Bilbao 19** Biltzarrean, "Automobilgintza eta garraio jasangarriaren etorkizuna" izenburuaren azpian emandako hitzaldian. Bertan, ALSA-k, sektoreko enpresa aitzindari bezala, **berrikuntza-mailarik altuena lortzeko eta posible den eskaintzarik onena emateko** garatzen dituen lan-ildo nagusiak aurkeztu zituen, beti modu jasangarri batetik abiatuta.


<https://www.alsa.es/eu/>

kapsch >>> KAPSCH

Kapsch TrafficCom garraio adimentsuaren sistemen hornitzailea da eta eremu hauetan jarduten du: bidesarien ordainketan, trafikoaren kudeaketan, hiri-mugikortasun adimentsuan, trafikoaren segurtasunean eta babesean eta konektatutako ibilgailuetan. Konponbideen hornitzaile bakar gisa, Kapsch TrafficCom-ek bere bezeroen balio-kate guztia barne hartzen duten konponbide osoak eskaintzen ditu, osagaietatik eta diseinutik, sistemak inplementatzera eta abiaraztera. Kutsadura murrizteaz gain, Kapsch TrafficCom-eko mugikortasun-konponbideei esker trafikoaren seguruagoa, fidagarriagoa, eraginkorragoa eta erosoagoa da edozein hiribide edo autopistan.

SUM BIO'19 Biltzarrean, Kapsch-ek hiri-mugikortasun jasangarriari buruzko hausnarketan lagundu zuen **"Mugikortasunaren erronkak hirien eraldaketan"** izenburuko hitzaldiarekin. Haren parte-hartzean, Javier Aguirre-k, gaur egungo Espainia/Portugaleko CEO-ak, Kapsch-en ikuspuntua partekatu zuen entzuleekin; teknologiaren eta berrikuntzaren ikuspuntutik, pilaketen eta kutsaduraren gehikuntza saihesteko edo murrizteko hartu dezaketen neurriei buruz jardun zen. Horrela, azaldutako zenbait estrategien artean, honakoak aipatu ziren: bideraketa dinamiko eta parte-hartzailea, hiriko hainbat gunetan trafikoaren murriztea, hiri-bidesaria, multiagentzia koordinazioa, informazioa partekatzea eta lotutako errepideak erabiltzea.

<https://www.kapsch.net/es>





SACYR

Industriaren sektoreko proiektuak, zerbitzuak eta azpiegiturak garatzen dituen talde globala da Sacyr. Taldea bost kontinenteetan dagoen proiektu jasangarria eta errentagarriaren ordezkari da orain dela 30 urte baino gehiago. Erronkak aukerak bihurtzeko gaitasuna duten 30.000 langile baino gehiago; gure hiriak, gure ingurumena eta gure eguneroko bizitza hobetu nahi duen etorkizunarekin konprometituta daudenak.

Sacyr-ek talde bakarra eta lau negozio-dibisio ditu: Sacyr Industrial, Sacyr Servicios, Sacyr Concesiones eta Sacyr Ingeniería e Infraestructuras.

Sacyr Industrial gure negozio eremurik gazteena eta dinamikoena da. Mota guztietako EPC proiektuak burutzen ditugu, industria-landareen, petrolioaren eta gasaren, energiaren, hondakinen eta uraren tratamenduen esparruetan. Sacyr Servicios-etik, jarduerak abiarazten ditugu honako gai hauetan: uraren zikloan, ingurumenean, hiritarrari zuzendutako berrikuntzan eta zerbitzu anitzetako kontratuetan. Gure bezeroen sendotasunagatik nabarmentzen gara, bai sektore publikoan zein pribatuan.

Dibertsifikatutako azpiegitura zorroari esker, Sacyr Concesiones-en hazkuntza potentziala duten kontzesioak eta kontzesio helduak batzen dituzten 36 aktibo ditugu. Azkenik, Sacyr Ingeniería mota guztietako eraikuntza jarduerak burutzen ditu obra zibilean eta eraikuntza. Proiektuen etapa guztiak hartzen ditu: diseinua, ingeniariaritz, egikaritzea eta mantentzea.

Konpainiak, ingurumeneko kalitate hobea eta herritarrentzako mugikortasun gune atsegingarri eta segurua bermatzera bideratutako mugikortasun adimentsuko irtenbideak eskaintzen dituenak, SUM Bilbao 19 biltzarrean enpresa babesle bezala parte hartu zuen. Modu horretan, Sacyr-ek etorkizunerako mugikortasunerako irtenbideak aurkeztu zituen Exhibition Hall-eko stand batean, hiri-mugikortasun jasangarriarekin duen konpromisoa aditzera emanaz.

http://www.sacyr.com/es_es/default.aspx



FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS

FCC Medio Ambiente-k parte hartu du aurtan Sustainable Urban Mobility Bilbao 2019 (SUM) nazioarteko biltzarraren lehenengo edizioan, hiri-mugikortasun eredu jasangarriagoen aldeko eragile ezberdinen arteko itunak sustatzeko helburuarekin sortzen dena. Bertan, aditu asko, erakundeen ordezkariak, enpresak eta ekintzaileak bildu ziren.

Zentzu horretan, Ingurumen-Zerbitzuen sailak hiri-zerbitzuen ibilgailuentzako lehen e-mobility plataforma garatu du. Edozein udalerriren esku e-mugikortasunaren teknologia jarriko duen plataforma eskuragarri eta jasangarri bat da. Plataforman garatutako lehen ibilgailuak, 480 kW-eko potentzia duen albo-kargako biltzaile trinkotzaile bat, lanaldi bateko lana ohiko ibilgailu termiko baten prestazio berdinekin garatu ahal du, baina emisio kutsatzailerik gabe, zaratarik gabe eta % 50 gutxiagoko kontsumo energetikoa erabiliz.

Modu horretan, enpresak Garapen Jasangarriako Helburuekin (ODS) duen konpromisoa sendotzen du, gure baliabideen kudeaketa eraginkorragoa eta jasangarriagoa egitera laguntzen duten ikerketa-proiektuak garatuz.

Biltzar honetan parte hartzeak enpresak berrikuntzan eta jasangarritasunean duen interesa erakustea ahalbidetu du, hirien eta herritarren beharrei erantzun eraginkor eta efizienteak emateko. Ildo horretan, FCC Medio Ambiente-k, "Bilboko Adierazpena" sinatzean, hiri-mugikortasun jasangarria faboratzera zuzendutako ekintzak bere gain hartzera konprometitu da. Horrela, nazioarteko esferan garapen jasangarri globala sustatzeko egiten diren esfortzuekin bat etortzen da.

<https://www.fcc.es/es/>





RED ELÉCTRICA DE ESPAÑA

Sare Elektrikoa eta ibilgailu elektrikoaren alde egiten duen apustua.

Espainiako Sare Elektrikoa mugikortasun jasangarrirako konpromisoa hartzen du ere, udaletxeei laguntza teknikoa emanez, ibilgailu elektrikoaren erabilera lurralde osora bultzatzeko eta hirietan eta udalerrietan kargatze-puntu publikoen instalazioa errazteko. Horrela, enpresak erregai fosilenganako dependentzia gutxiagoko eredu energetiko baten aldeko apustua egiten du eta, horrek, Europako helburuekin konpliztea eta Gobernuak hiri-mugikortasunaren, deskarbonizazioaren eta aldaketa klimatikoaren aurkako borrokaren gainean zehaztu dituen helburuak betetzea ahalbidetuko dio.

Espainiako Probintzien eta Udalerrien Federazioarekin (FEMP) batera, Sare Elektrikoak paper garrantzitsua betetzen du sisteman ibilgailu elektrikoaren flotaren guztizko integrazioa ahalbidetzen duten tresnen bideratzaile gisa, Ibilgailu Elektrikoko Kontrol-Zentroaren (Cecovel) bidez instalatutako kargatze-puntuen kudeaketa adimentsuaren bitartez.

<https://www.ree.es/es>



BEAZ

Beaz Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia eta Lurralde Garapenerako Sailaren menpe dagoen erakunde forala da, enpresa-ekimen berritzaile berriei baliatzen dena eta Bizkaian dauden enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzen duena. Halaber, ETEen hazkuntza, berrikuntza eta nazioartekotzea sustatzen du une oro.

Hogeita hamar urte baino gehiagoko jarduketan zehar, ekintzaileak eta enpresak laguntzen dituzte balio gehigarriko zerbitzuen hornikuntzaren bidez, hainbat tresna konbinatuz: inkubagailuak, enpresa-eragileekin egiten diren hitzarmenak, finantzazioa, etab.

Biltzarrean, Bizkaiko start-up-en eta ETEen ordezkariak handia egon zen: hiri-mugikortasuna eraldatzen ari diren app eta plataformak, hiri-mugikortasun elektrikoa eta garraioaren eremuko produktuak, Smart City-entzako soluzio globalak, etab.

Horretaz gain, abagune ezin hobe izan zen Sare Elektrikoa Bilboko Adierazpenera atxikitzeko.

<https://beaz.bizkaia.eus/index.php?lang=eu-es>



16.

LAGUNTZAILEAK

ORGANIZADORES / ANTOLATZAILEAK
Bilbao **Petronor**

PATROCINADORES / BABESLEAK / SPONSORED BY:
bbk **REPSOL**

SILVER
Irizar e-mobility **BIL**
kapsch **FCC**
ALSA **sacyr**

BRONZE
RED ELÉCTRICA DE ESPAÑA **Bizkaia**

SWM **BIO**
'19





CIUDADES Y GOBIERNOS LOCALES UNIDOS (CGLU)

CGLU erakundea **tokiko eta eskualdeko gobernuen bozeramaile** bihurtu da –zerbitzua ematen dieten komunitateen tamaina edozein izanda ere– hauen interesak mundu osoan zabaltzeko eta defendatzeko helburuarekin. Erakundeak Batzelonan du egoitza eta hau da bere xedea: “Tokiko gobernu autonomo eta demokratikoen ahots bateratuaren ordezkari izatea mundu osoan zehar, gobernu hauen balioak, helburuak eta interesak sustatuz, toki-ko eta eskualdeko gobernuen arteko lankidetzaz sustatzeari esker, eta nazioarteko komunitate osoaren aurrean.”

CGLU erakundearen eginkizunak hauek dira:

- Tokiko eta eskualdeko gobernuen eta nazioarteko gobernantzaren ordezkari diren erakunde **eginkizuna eta eragina areagotzea;**
- Demokratikoak, eraginkorrak, berritzaileak eta herritarrekiko hurbilak diren tokiko gobernuen **laguntza-iturri nagusia izatea;**
- **Nazioarteko erakunde** demokratiko eta eraginkor bat **bermatzea.**

CGLU erakundeak hirien eta bertako elkarten arteko nazioarteko lankidetzaz bultzatzen du, eta programak, sareak eta elkarteak sortzea ahalbidetzen du tokiko gobernuen gaitasunak garatzeko helburuarekin. Halaber, emakumeek toki-mailan erabakiak hartzeko orduan duten eginkizuna aldarrikatzen du eta mundu osoko tokiko gobernuen inguruko informazio garrantzitsua eskaintzen du.

Nazio azpiko gobernuek osatutako munduko elkarte handiena da; **240.000 kide**tik gora ditu Nazio Batuen kide diren 140 estaturen artean banatuak eta munduko biztanleriaren erdiaren baino gehiagoren ordezkari gisa jarduten du.

<https://www.uclg.org/es>



ESPAINIAKO PROBINTZIEN ETA UDALERRIEN FEDERAZIOA (FEMP)

Espainiako Probintzien eta Udalerrien Federazioa (FEMP) estatu mailako toki-erakundeen elkarte garrantzitsua da, udalak, aldundiak eta uharteko kontseiluak eta kabildoak barne hartzen dituena, 7.324 guztira, hau da, Espainiako toki-gobernuen %90.

Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen Bosgarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren arabera sortu zen eta herri-onurako elkarte gisa izendatu zen 1985eko ekainaren 26ko Ministroen Kontseiluaren akordio bidez.

FEMPa da Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseiluaren (CMRE) Espainiako atala eta Iberoamerikako Udalen Arteko Lankidetzarako Erakundearen (OICI) egoitza ofiziala ere bai. FEMParen helburuak eta estatutuetako xedeak honakoak dira:

- Toki-erakundeen autonomiaren sustapena eta babesa;
- toki-erakundeen interes orokorren ordezkartza eta defentsa bestelako administrazio publikoen aurrean;
- Europako espirituaren garapena eta ezarpena toki mailan, toki-erakundeen arteko elkartasuna eta autonomia oinarri izanda;
- Toki-erakundeen eta beren organizazioen arteko adiskidetasuna eta lankidetzaz sustatu eta bultzatzea, Europako, Iberoamerikako eta mundu arabiarren eremuan batez ere;
- Toki-erakundeei edo horien mendeko organoei orotariko zerbitzuak ematea, zuzenki edo bestelako sozietate edo erakunde bitartez; eta Federazioaren kideei zuzenki edo zeharka eragiten dien beste edozein helburu.

<http://www.femp.es/>



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA

EUEDEL Euskadiko udalgintzaren erreferentzia da, 1982an sortu zenetik solaskide baliagarri eta eraginkorra da Tokiko Gobernuen eta gainerako erakundeen arteko harremanean, politika publikoen koordinazioan eta adostasunean.

Elkarte gisa, bere egiteko nagusia **denok elkartzeko** moduko espazioa eskaintzea da, Tokiko Gobernuen interes orokorrak ordezkatuz. Elkarteko estatutuetan, bere helburuen artean, hauek nabarmendu behar dira:

- Tokiko Gobernuen eta beste erakundeen arteko **solaskidetza** elkartzea, politika publikoak diseinatu, prestatu eta betearazteko asmoz.
- Udal autonomia **sustatu eta defendatzea**.
- Espiritu eta konpromiso europarra garatzea Euskadiko Tokiko Gobernuen artean, euren parte-hartzea eta ordezkaritza sustatuz **Europako eta nazioarteko erakundeetan**.

EUEDELek Europarekiko konexioa ahalbidetzearen alde egiten du lan, Euskadiko udalen ekintzak eta praktika onak ezagutaraziz eta Euskadiren interesei erantzuten dieten Europako politiken definizioan parte hartuz. Europako esparruan, EUEDELek Euskadiko tokiko boterea ordezkatzen du **Europako Udalerrri eta Eskualdeen Kontseiluan (CMRE)** eta **Europako Kontseiluko Toki eta Eskualde Botereen Biltzarrean (CPLRE)**.

<http://www.eudel.eus/>



AMETIC

Espainiako industria digital teknologikoaren sektoreko patronal ordezkaria gara. Gure bazkideak neurri guztietako enpresak dira, hauek barne: ITen, Telekomunikazioen, Elektronikaren, Zerbitzuen eta Eduki Digitalen eremuetako enpresa global handiak; eraldaketa digitalaren buru diren enpresak; eta sektoreko elkarteak.

IKUSPEGIA

Gaur egun Espainiako teknologia digitalak eskaintzen dituen aukeren onurak aprobetxatzen dituen gizartea, eta sektore hau helburu ekonomiko eta sozialak lortzeko motortzat hartzen duen gizartea.

MISIOA

Teknologia digitalen erabilera eta garapena hobeto ahalbidetzen duten legezko testuingurua eta ekonomia-politika sustatzea, gure bazkideen hoberako. Helburu hau lortu nahi dugu bazkide konstruktibo gisa lan eginez; erakunde nazional edo europarrekin, publiko zein pribatuekin, eta nazioarteko beste zenbait organismoekin batera.

<https://ametic.es/es>



UITP (Union Internationale des Transports Publics)

UITPa (Union Internationale des Transports Publics), **Garraio Publikoaren Nazioarteko Elkartea**, hiri-mugikortasun jasangarriaren aldeko babesle sutsua da. Mota guztietako garraio jasangarriak eta garraio publikoaren eragile guztiak biltzen dituen sare global bakarra da. Gaur egun, UITPak afiliatutako 1.500 enpresa baino gehiago ordezkatzten ditu eta 18.000 kontaktu baino gehiagori hiri-, toki-, eskualde- eta nazio-mailako mugikortasunerako sarbidea ematen die kontinente guztietako 96 herrialde baino gehiagotan.

Mugikortasuneko Txapeldunen Komunitatea

Garraio publikoa inflexio-puntu batean dago. Handituz doazen hiri- eta mugikortasun-erronkei aurre egiteko xedearekin, UITP eta CGLU (Hiri eta Tokiko Gobernu Batuak) elkartu egin dira goi-mailako plataforma bat bultzatzeko asmoz. Plataforma horren helburua tokiko eta eskualdeko liderrak hiri irisgarriago, eraginkorrago eta bizigarriagoen erakuntzan parte har dezaten da.

Mugikortasuneko Txapeldunen Komunitatea emaitzei orientatutako plataforma bat da. Lider politikoek (Txapeldunak) talde tematikoetan antolatuko dituzte haien jarduerak, hauen lehen tasun eta helburu estrategikoen arabera, momentu oro hainbat gaien inguruko jardunbide egokiak modu dinamikoan partekatu ahal izateko.

CGLU eta UITPak Mugikortasuneko Txapeldunen Komunitatea babestuko dute hiri-mugikortasuna ideia digital, ekonomiko, gizarte- eta ingurune-ideiekin elkartzen duen ikuspegi holistikoa hartuz. Txapeldunek sortutako ezaguera garrantzizko etapa guztietan partekatuko da nazioarteko, nazioko, eskualdeko eta tokiko mailan.

Komunitateko kideak izango dira hiri-mugikortasunari buruzko eztabaidaren buru, eta afiliatuen eta nazioarteko erakundeen artean duten influentzia areagotuko dute. Mugikortasunean inpaktua duten politika, estrategia eta legegintza-esparruak alderatuko dituzte, eskualde-mailako testuinguru ezberdinen ikaskuntzak eskuratuz. Oraingo eta etorkizuneko belaunaldientzat gizarte- eta genero-ekitatea barne hartzen dituen garapen jasangarri eta erresilientea sustatzeko aukerak eskainiko zaizkie, mugikortasun jasangarriko estrategia eta planak ekonomian, enpresa-jardueran, osasunean, turismoan eta kulturaren inguruko dituzten inpaktu positiboak erakustez gain.

<https://www.uitp.org/>



Energiaren Euskal Erakundea (EEE)

Eusko Jaurlaritzak eratu zuen Energiaren Euskal Erakundea (EEE) 1982. urtean, eta energia-politikaren oinarriak finkatu zituen. Oinarri horiek, garaian garaiko egoerara egokituta, energia-eraginkortasuna, gure energia-iturrien ugaritzea eta energia berriztagarrien sustapena izan dira.

Harez geroztik, Eusko Jaurlaritzak ezarritako politiken ildotik, hainbat egitasmo eta ekimen garatzen dituen euskal energia agentzia da.

MISIOA

El **Energiaren Euskal Erakundea (EEE) Eusko Jaurlaritzaren energia agentzia da** eta honako misioa hau du:

- **Euskadiko energia estrategiak proposatzea**, horniketa-bermearen, kostuetan lehiakortasunaren, iraunkortasunaren eta garapen teknologikoaren irizpideak aintzat hartuta.
- Estrategien **garapenean parte hartze aktiboa izatea** eta horietan zehaztutako helburuak lortzen laguntzea.

Horretarako **Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegiturak sailari aholku eta zerbitzuak ematen dizkio** eta energiaren eta geologia-meatzaritza baliabideen gaitan lanak egiten ditu. Horretaz gain, erakunde eta enpresak suspertu eta inplikarazteko, zenbait egitasmotan hartzen du parte eta haren estrategiak gidatzen dituzten balioak eta irizpideak zabaltzen ditu gizartean.

Pertsonen lidergoan, konpromisoan eta kualifikazio teknikoan oinarritzen da Energiaren Euskal Erakundearen jardun gaitasuna. Horrekin batera, dituen baliabideen planifikazioan eta kudeaketa eraginkorrean datza gaitasuna.

<https://www.eve.eus/>



IHOBE

Ihobe **Sozietate Publiko** bat da, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari atxikia.

Ihobek Eusko Jaurlaritzari laguntzen dio **ingurumen-politika** garatzen eta **ingurumen-jasangarritasunaren kultura hedatzen**, Euskal Autonomia Erkidegoan.

EGINKIZUNA

- Ingurumen-ezagutzaren sorrera eta dibulgazioa katalizatzea.
- Enpresekin, administrazio publikoarekin eta herritarrekin kooperatzea.
- Ingurumenaren hobekuntzan laguntzea eta modu aktiboan parte hartzea.
- Ezagutza eta baliabideak konpartitzea, bikaintasunetik eta gizarte-erantzukizunetik.

IKUSPEGIA

- Ihoberen asmoa da Eusko Jaurlaritzaren laguntzaile eraginkorra eta aholkulari aitortua izatea, eta bere esperientzia jartzen du gizartearen eta sektoreko eragileen zerbitzuan, EAEko ingurumen-helburuekin bat datozen irtenbideak eta zerbitzuak sustatzeari begira.
- Ihobe ingurumen-ezagutzaren eragile katalizatzaile bat da, ezagutza horren sorrera dinamizatu eta bultzatzen duena eta haren dibulgazioan laguntzen duena.

Sozietate publiko hau identifikatzen duten ezaugarrietako bat da beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin etengabe kolaboratzeko duen bokazioa. Harreman horrek konfiantza eta hurbiltasuna hartzen ditu oinarritzat, baina oinarri garrantzitsuena da ingurumen-politikaren alorreko lankidetzaren dinamika hori euskal gizarte osoarentzat onuragarria dela sinestea.

<https://www.ihobe.eus/inicio>

Bibliografia

Arthur D. Little & UITP. (2018). The Future of Mobility 3.0: Reinventing mobility in the era of disruption and creativity .

Arthur D. Little & UITP. (2013). The Future of Urban Mobility 2.0.

Boschetti, F., Maurizi, I., Cré, I., & Leonard, C. (2014). Innovative Urban Transport Solutions: Civitas makes the difference. ICLEI - Civitas Project.

Chase, R. (5 de January de 2015). Innovating for smart, sustainable cities: A Q&A on urban mobility with Zipcar founder Robin Chase. (R. Schleeter, Entrevistador) The City Fix by WRI Ross Center for Sustainable Cities.

Kaufman, D. (2017, March 3rd). What's The Future of Transportation? (N. Hastreiter, Interviewer) Futureofeverything.io.

Kennedy, C., Stewart, I. D., & Westphal, M. I. (2019). Working paper - Shifting currents: opportunities for lowcarbon electric cities in the global south. WRI Ross Center for Sustainable Cities.

Lackner, C. (2018, March 5). NXP. 2019ko martxoaren 18an kontsultatua, from Blog NXP: <https://blog.nxp.com/uncategorized/the-future-of-urban-mobility-smart-cities-use-the-iot-and-mobile-for-better-ways-to-move-people-and-goods>

Navigant Research. (2018). Urban Mobility Innovations. Retrieved March 18, 2018, from Navigant Research: <https://www.navigantresearch.com/reports/urban-mobility-innovations>

New Climate Institute & C40 Cities. (2018). Climate opportunity: more jobs; better health; liveable cities quantifying the benefits of climate change mitigation measures in buildings, transport and energy supply. Project developed in collaboration with: Global Covenant of Mayors for Climate & Energy (GCoM) and Bloomberg Philanthropies.

Tsay, S.-p., & Herrmann, V. (2013). Rethinking urban mobility: Sustainable Policies for the century of the city. Massachusetts: Carnegie Endowment for International Peace .

UN Habitat. (2013). Institutions and governance for urban mobility (Chapter 9). En Planning and Design for Sustainable Urban Mobility: Global Report on Human Settlements 2013 (pp. 175-195). Nairobi: UN Habitat.

UN Habitat. (2019). Urban themes - Mobility. Consultado el 18 de marzo de 2019, from UN Habitat: <https://unhabitat.org/urban-themes/mobility/>

United Cities and Local Governments - UCLG. (2018). Local and regional governments' report to the 2018 HLPF: Towards the localization of the SDGs. Barcelona: UCLG.

ANTOLATZAILEAK



BABESLEAK



SILVER



BRONZE



LAGUNTZAILEAK



MEDIA PARTNER

